

3. EREDUA

JAULKITZAILEAK ETA TALDEAK

1.- RF11 Sustatzailea/Babeslea (eranskin batekin bai ala ez, baina zer esan nahi du?)

▪ Eremu hau 3. ereduko Jaulkitzaileen eta Taldeen atalean bete beharko da, jaulkitzailea Sustatzaile edo Babeslea den adierazita, 3.1.5. eranskinean jasota dagoenez.

2.- RF13 Taldearen izena

▪ Eremu honetan Erakundeak talde bakoitzari esleitutako izena adierazi beharko da, 3. ereduko Jaulkitzaileen eta Taldeen atalean, «Taldearen izena» eremuan.

Talde ekonomiko bat osatzen duten jaulkitzaileen multzoa da taldea. Taldeen erregistroan talde ekonomiko hauek jasotzen ditu. Jaulkitzaile batek beste batzuekin batera talde ekonomikoa osatzen duen ala ez alde batera utzita, talde-erregistro bat sortu beharko da jaulkitzaile horrentzat; hau da, jaulkitzaile bakoitzak talde baten barruan egon beharko du. Gainera, igorle publikoa bada, fikziozko talde bakar gisa sailkatu beharko da beti, «Jaulkitzaile Publikoak» izenaz, eta bertan barne hartu beharko dira jaulkitzaile publiko guztiak (Estatua edo organismo autonomoak, Autonomia-erkidegoak, tokiko korporazioak, Lankidetzak eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen kide diren beste estatu batzuetako Administrazio Publikoak, edo Espainia kideen artean duten nazioarteko erakunde edo organismoak).

Talde bakoitzean gehienez adierazi ahal diren jaulkitzaileen kopurua talde ekonomiko jakin hori osatzen duen kopurua izango da. Adibidez, «X taldea» hiru enpresek osatzen badute, eta BGAEak hiru enpresa horietako batean inbertitzen badu, jaulkitzaile gisa alta egin beharko litzaieke inbertsioa jaso duten enpresei eta talde bakarrari, «X taldeari», alegia. «Jaulkitzaile Publikoak» talderako, adierazi ahal diren jaulkitzaileen kopurua mugagabea izango da.

3.- RV13 Taldearen izena

Gure kasuan, hain zuzen, arrisku-taldeak eta talde ekonomikoak sailkatzen ditugu, eta, nahiz eta azken horiei erreferentzia egiten diela ulertu, argitzea gustatuko litzaiguke.

Ikusi 2. galderaren erantzuna.

4- Beharrezkoa da jaulkitzaile bakoitzarekin talde-erregistro bat definitzea? Edo, bestela, zeri buruz ari da talde-erregistroaren definizioa?

Zenbat jaulkitzaile adieraz daitezke gehienez talde bakoitzean?

▪ Ikusi 2. galderaren erantzuna.

5- EKD eredu berrien xml fitxategiaren inguruan sortu zaizkigun hainbat zalantza doaz erantsita:

- Taldeen eta Jaulkitzaileen ereduetan, zer irizpide ezarriko da horiek zenbatzeko/kodifikatzeko?
 - XML fitxategiak egiteko orduan, erakundeek talde- zein jaulkitzaile-kodeen alta egin beharko dute, era korrelatiboan, honako adibide honetan adierazita dagoenez:

Taldearen izena	Talde-kodea	Jaulkitzailearen izena	Jaulkitzaile-kodea
X	1	A	1
X	1	B	2
X	1	C	3
X	1	D	4

Y	2	E	5
Y	2	F	6
Y	2	G	7
Y	2	H	8
Y	2	I	9

6 Jaulkitzaileen definizioan, «Kalifikazio-agentziak» eta «Kalifikazio zerrenda» ataletan, balio-erosketen kideek adierazi didate jaulkitzaile guztiek ez dutela kalifikaziorik. Adierazi didate zorrik jaulkitzen ez duten jaulkitzaileek ez dutela kalifikaziorik.

Kasu horietan, nola jardun behar dugu? Kalifikaziorik ez badago, zer informazio jakinarazi behar dugu?

- Aplikazioan aldaketa bat izan da atal horretan. Jaulkitzaile eta taldeen atalean, «Kalifikazio-agentziak» atalean, bosgarren aukera bat agertuko da, «Kalifikaziorik gabea» izenekoa. Gainera, «Kalifikazio-agentziaren kalifikazioa» atalean, Kalifikazio-agentziarik dagoen ala ez soilik adierazi beharko da.

7- Bestalde, atentzioa eman dit jaulkipenaren *rating*-ari dagokion agentziaren atala bete behar izateak, eta jaulkitzailearen kasuan hori egin behar ez izateak.

- Jaulkitzailea kalifikatzen duen agentzia jaulkitzaile eta taldeen fitxategian jasota egongo da. Jaulkitzaile baten alta egiten denean, kalifikazio-agentzia bat sartu beharko da.

8- RF10 Espainia kideen arten duten erakunde edo organismoak

- 29/04/2009 Aginduaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatu organismoak Administrazio Publikoetan asimilagarriak dira. Zentzu horretan, horietakoren batek jaulkitako balioen bat badago, inguruabar zehatzak adierazi beharko dira eta, ondoren, organismo jaulkitzailea zehaztu.

Datu horiek 3. ereduko Jaulkitzaileak eta Taldeak atalean jasoko dira, honako eremu hauetan: «Jaulkitzaile mota» eta «Oharrak 3», hurrenez hurren.

9- D1. Kreditu-erakunde jaulkitzailea

Gure sustatzaile/babeslea ez da kreditu-erakunde bat. Zer jarri behar dugu hor?

Bestalde, dirudienez, ez dut zehaztu behar ez zer erakundetan ditudan gordailuak ez horien *rating*-a. Horrela da, ala atalen batean adierazi behar da?

- Aplikazioan aldaketa bat izan da atal horretan. Ez da adierazi beharko gordailua barne hartzen duen kreditu-erakundea bazkide sustatzaile edo babeslea den. Gordailua zein kreditu-erakundetan eratu den adierazi beharko da soilik. Horretarako, jaulkitzaile eta taldeen erregistroan jaulkitzaile gisa egin beharko zaio alta, baldin eta gordailua barne hartzen duen kreditu-erakundea aurretik jasota ez badago. Jaulkitzaile eta taldeen erregistroan alta egitean zehaztuko da kreditu-erakundearen *rating*-a.

ERRENTA FINKOA

10 Interes-tasa efektiboak jaulkipenaren interes-tasari egiten dio erreferentzia?

- Ez. Interes-tasa efektiboa, kontratuan ezarritako baldintzetatik abiatuta eta etorkizuneko kreditu-arriskuengatik izandako galerak kontuan hartu gabe, finantza-instrumentu baten liburu-balioa eta instrumentu horren bizitzan zehar espero diren diru-fluxu estimatuen balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa da.

11 Zer ezberdintasun dago arrazoizko balioaren zutabearen eta Merkatu balioaren zutabearen artean?

- Zehaztuta ez dagoen arren, ulertzen dugu galdera honek 3. ereduaren RF atalari egiten diola erreferentzia:

Arrazoizko Balioari dagokion eremua RF balio ez negoziagarrietarako soilik bete behar da (negoziagarritasun irizpideak betetzen ez dituztenak), horien arrazoizko balioa barne, zeina etorkizuneko diru-fluxuak kenduta zehaztu behar baita.

Merkatu balioaren atala RF balio negoziagarrietarako soilik bete behar da (negoziagarritasun irizpideak betetzen dituztenak).

12 Interes-tasaren eguneratzeak erosketari TIR-ari egiten dio erreferentzia?

- Ez. Arrisku-primaren (balioen likidezia-graduaren, jaulkipenaren baldintza zehatzen, jaulkitzailearen kaudimenaren, herrialdeko arriskuaren edo balioari berez atxikitako bestelako edozein arriskuren erakusgarri den marjina) eta, haren ezaugarriak direla eta, dagokion balioari asimilagarria den zor publikoaren interes-tasaren batuketak osatzen du Interes-tasaren eguneratzea.

13 Balantzearen zutabea: nola jakin dezakegu zer den A2, A3, A4 edo A6

- Erakundeak dagokion aktiboa zer erregistro kontabletan sailkatuta duen arabera izango da.

14.- RF3 HM estalduraren egozpenak.

- Galderan RF3 zehaztu bada ere, ulertzen dugu RF4 eremuari egiten diola erreferentzia: HM estalduraren egozpenak, 3. ereduaren RF 3.1 atalean.

- Eremu honetan, hornidura matematikoen estalduraren portzentajeari egiten zaio erreferentzia, aktibo bakoitzaren arabera. Hornidura matematiko horiek honako aurreikuspen-plan hauetan kalkulatu beharko dira: prestazio definituko aurreikuspen-planetan; errenta aktuariala duten ekarpen definituko planetan; arrisku-prestazioak dituztenetan; inbertsioaren emaitza bermatzen duten planetan (kanpo-bermatzea duten planetan izan ezik); edo aurreko aukeren konbinazioak barne hartzen dituztenetan. Ondorioz, hornidura matematikorik kalkulatu beharrik ez duten plan edo prestazioetarako ez da eremu hau bete beharko.

15.- Errenta Finkoan «RF4» eremuak «HM estalduraren egozpena» dio. Zer esan nahi du horrek?

- Ikusi 14. galderaren erantzuna.

16 RF16: Merkatu balioa.

Epemugan dauden balioen kasuan, Merkatu balioa ala Balantzeko balioa adierazi behar dut? Balio unitarioa da ala posizioaren guztizkoa?

- Balio biak adierazi behar dira:

1: RF28: Kostu amortizatua, aktibo horren balantzeko balioa izango da.

2: RF16: Merkatu balioa, aktibo horren kotizazio-balioa izango da.

Eremu biak bete behar dira soilik RF balio negoziagarrien kasuan (negoziagarritasun irizpideak betetzen dituztenak), horiek baitira «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» zorroan sailka daitezkeen bakarrak.

- Eremu bietan bete beharreko zenbatekoak aktibo horren posizioaren guztizkoa izan behar du.

17.- RF17: Hondatzea

Ulertu dut eremua hondatutako epemuga-balioen kasuan soilik bete beharko dudala.

- Oro har, hain zuzen, «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» zorroan sailkatutako RF balioen kasuan bete behar da eremu hau, eta balioak hondatu egin diren ebidentzia objektiboak daudenean, dagokion hondatzearen testaren emaitzen arabera.

Gainera, hala badagokio, «Aktibo finantzario salgarriak» zorroan sailkatutako balioen kasuan ere bete beharko litzateke, baldin eta balioetan hondatu izanaren ebidentzia objektiboak badaude; betiere, metatutako galerak behin betikotzat jotzen badira eta ondare garbian aitortuta badaude.

18.- RF22 azken hiru merkatu-saioen kotizazio-data.

- RF20 «2009-04-29ko Aginduaren 16.1b) artikulua betetzen du» eremuaren lehen aukera betetzeagatik negoziagarriak diren RF balioen kasuan betetzen da eremu hori.

19.- RF22. Azken hiru merkatu-saioen kotizazio-data.

- Ikusi 18. galderaren erantzuna.

20.- Kotizazio-data etiketaren arabera, data nahitaez adierazi behar da negoziagarria bada. Adierazi beharko litzateke «16.1b artikulua betetzen du» eremuan 1en berdina dela?

- Bai, baina honako hau izango litzateke betetze-ordena: 1.- «2009-04-29ko Aginduaren 16.1b) artikulua betetzen du» eremuan 1. aukera markatu; eta 2.- «Azken hiru merkatu kotizazio-data» eremua bete.

21.- RF25 Finantza-agenteen azken kotizazio-data

- RF20 -«2009-04-29ko Aginduaren 16. artikulua 1.b) atala betetzen du» eremuaren bigarren aukera betetzeagatik negoziagarriak diren RF balioen kasuan betetzen da eremu hori.

22.- Zein da ezberdintasuna azken bi puntuetan (19. eta 21. galderak)? Ezberdindu behar al dira diru-emaleek ematen dizkiguten prezioak eta besteak?

- Ez, kasu hauetan adierazi behar dira dagozkion datak, negoziagarritasuna justifikatzen duen arrazoiak aldeztu aurretik aukeratuta.

23.- RF25: Finantza-agenteen azken kotizazio-data.

- Ikusi 21. galderaren erantzuna.

24.- «Finantza-agenteen azken kotizazio-data» etiketaren arabera, data nahitaez adierazi behar da negoziagarria bada. Adierazi beharko litzateke «16.1b artikulua betetzen du» eremuan 2ren berdina dela?

- Bai, baina honako hau izango litzateke betetze-ordena: 1.- «2009-04-29ko Aginduaren 16.1b) artikulua betetzen du» eremuan 2. aukera markatu; eta 2.- «Finantza-agenteen azken kotizazio-data» eremua bete.

25.- RF26 Finantza-agentearen izena (hemen ekarpen-egilearen prezioen kasuan ala guztietan?).

- Ez, ekarpen-egilerik dagoen kasuetan soilik, RF20 eremuan hautatutako aukeraren arabera (bigarrena).

26.- RF27. Interes-tasa efektiboa:

Epemugako balioetan, zein jarriko dut; nominala ala periodikoari dagokion TIRa?

- Interes-tasa efektiboa, kontratuan ezarritako baldintzetatik abiatuta eta etorkizuneko kreditu-arriskuengatik izandako galerak kontuan hartu gabe, finantza-instrumentu baten liburu-balioa eta instrumentu horren bizitzan zehar espero diren diru-fluxu estimatuen balioa berdintzen dituen eguneratze-tasa da.

27.- RD27 Interes-tasa efektiboa (hemen egungo tasa?).

- Ikusi 26. galderaren erantzuna.

28.- Interes-tasa efektiboa; horren baitan dago titulutik sortutako TIR?

- Ikusi 26. galderaren erantzuna.

29.- Interes-tasa efektiboa zehazteko erabiltzen duten eremua 5 posiziodun zenbaki gisa definituta dago (hamarrekorik gabe). Zuzena al da hori?

- Aplikazioan aldaketa bat izan da atal horretan. Interes-tasa efektiboa eremua % formatuan definitzen da.

30.- RF28 Kostu amortizatua? (Zer hartzen du barne?)

- «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» zorroan sailkatuta dauden RF aktibo negoziagarri bakoitzarentzako posizioaren balio osoa.

31.- Errenta finkoan, «RF35» eremuak arrazoizko balioa ageri da. Zer baliori buruz ari da?

- Negoziagarritasun irizpideak ez betetzeagatik negoziagarriak ez diren RF aktiboen balorazioari dagokio, zeina etorkizuneko diru-fluxuak kenduta zehaztu behar baita.

32.- RF36 Arrisku-prima (diferentzialari buruz ari da hemen?)

- Balioen likidezia-graduaren, jaulkipenaren baldintza zehatzen, jaulkitzailearen kaudimenaren, herrialdeko arriskuaren edo balioari berez atxikitako bestelako edozein arriskuren erakusgarri den marjina da arrisku-prima, baldin eta, haren ezaugarriak direla medio, zehaztu beharreko balioari asimilagarria den zor publikoaren interes-tasari gehitzen bazaio «Interes-tasaren eguneratzea» zehazteko (RF37).

33.- Errenta Finkoan, «RF36» eremuak Arrisku-prima adierazi du. Zer esan nahi du horrekin?

- Ikusi 32. galderaren erantzuna.

34.- RF37: Interes-tasaren eguneratzea

- Ikusi 32. galderaren erantzuna.

35.- Errenta finkoan, «RF38» eremuak Iraupena adierazi du. Zer iraupeni buruz ari da?

- Macaulay-ren iraupenari buruz ari da.

36 - RF39: Azken balorazioaren data

- Eremu hau negoziagarriak ez diren RF balioetarako betetzen da.

37.- Errenta finkoan ez dut balio baten zorroko tituluen zenbateko nominala adierazteko epigraferik topatzen. Zuzena da?

- Zuzena da. Ez dago horretarako eremurik.

38.- Negoziagarria edo Ez negoziagarria: Negoziagarritzat jotzen dira merkatuan kotizazioa eragin dezaketen balioak. Gure epemuga-zorroaren barruan titulu gehienek betetzen dute baldintza hori, baina eredu horren «Balantzea» datuaren barruan ez dugu balio negoziagarrietarako A6 aukera aurkitzen (bertan jasota dago gure zorroa epemugan). Ulertu behar dugu, orduan, epemuga-zorroko tituluak ez direla negoziagarriak?

- Galderan planteatzen den arazoa aplikazioaren hasierako diseinuaren gabezien ondorio da, baina dagoeneko konponduta dago «EKD ereduaren fitxategi berrien definizioa» dokumentuaren azken bertsioan.

39.- Ulertzen dugu gordailuen ereduak banku-gordailuak jaso behar direla, baina bertan jaso behar al ditugu astebete baino epemuga txikiagoa duten k/k, kutxa edo zorraren gaineko *repo*-ak ere? Kasu horretan, zer instrumentu motatan sailkatuko genituzke? Zer eremu bete beharko genituzke?

- Bai, k/k eta kutxako saldoak ere jaso behar dira 3. ereduaren «Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 92/2007 Dekretuaren 11.3.l artikuluko sozietateetako partaidetzak» eremuan.
- *Repo*-ak 3. ereduaren RF atalean barne hartu behar dira, dagokion eremuan.

40.- Bestalde, Errenta finkoko beste kontsulta batzuk ere helarazi nahi dizkizuegu:
- Bertan jaso behar dira *Repo*-ak?

- Bai.

41.- Zenbait ohar ere badira, 5 hain zuzen ere.

- RF19 Oharrak1: Eremu hau bete beharko da baldin eta RF18 «Negoziazio-merkatua» eremuan 3.1.7. eranskinaren «Beste batzuk» aukera hautatu bada.
- RF30 Oharrak2: Eremu hau bete beharko da baldin eta RF29 «11.3.ñ i artikulua betetzen du» eremuan 3.1.5. eranskinaren «Ez» aukera hautatu bada.
- RF32 Oharrak3: Eremu hau bete beharko da baldin eta RF31 «11.3.ñ ii artikulua betetzen du» eremuan 3.1.5. eranskinaren «Ez» aukera hautatu bada.
- RF34 Oharrak4: Eremu hau bete beharko da baldin eta RF33 «11.3.ñ iii artikulua betetzen du» eremuan 3.1.5. eranskinaren «Ez» aukera hautatu bada.
- RF40 Oharrak5: Eremu hau bete beharko da baldin eta RF39 «Azken balorazioaren data» eremuan adierazitako data bat ez badator eskatutako informazioari dagokion aldiaren azken egunarekin.

ERRENTA ALDAKORRA

42.- eredu honetan jaso behar ditugu Enpresa partaidetuak (A11)?

- Bai.

43.- «16.1a) artikulua betetzen du» eremuaren barruan, ulertzen dugu RV negoziagarri guztiak dutela negoziazio elektronikoa (1. aukera). Noiz ezarri beharko dira 2. (adierazle baten parte da) edo 3. (beste batzuk) aukerak?

- BGAE baten RV balio guztiak elektronikoki negoziatuak badira, inoiz ez dira 2. eta 3. aukerak hautatu beharko. Lehenengo aukera hautatuko da.

EGITURATUAK

44.- E20 Azken hiru merkatu kotizazio-data.

- E18 «2009-04-29ko Aginduaren 16.1b) artikulua betetzen du» eremuaren lehen aukera betetzeagatik negoziagarriak diren egituratuen kasuan betetzen da eremu hori.

45.- E27 Azken kotizazio-data.

Zer ezberdintasun dago E20 eta E27 eremuen artean?

- «Azken kotizazio-data» eremua bete beharko da baldin eta E18 «2009/04/29ko Aginduaren 16.1a) artikulua betetzen du» eremuan, «Finantza-merkatu batean trafiko orokortu eta inpersonala jasan dezaketen beste batzuk» aukeratu bada negoziagarritasun arrazoi gisa.

46.- A36 Albokoa (hemen azpikoa jarri behar da, ezta?)

- 92/07 Dekretuaren 11. artikuluan aurreikusitako aktiboen barruan egituratuaren albokoaren mota adierazi beharko da, 09/04/29ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

47.- E36 Albokoa:

Ez dut ondo ulertzen zer bete behar den hemen.

- Ikusi 46. galderaren erantzuna.

48.- E39 Balorazio-metodoa (ez du eranskinik, pentsatzen dut idatzizkoa izango dela).

- Bai, hala da.

49.- Egituratuaren ereduaren, kontrako aldeak ematen digun prezioa erabiltzen dugu beti balioztatzeko, inoiz ez ditugu barne-ereduak erabiltzen. Zer jarri behar dugu E39 Balorazio-metodoa atalean?

- Testu-eremua da, eta bertan zehaztu beharko da barne-metodoa edo, hala badagokio, kontrako aldeak erabilitako metodoa.

50.- Hemen ere badira zenbait ohar-eremu.

- Ohar-eremuek, oro har, iruzkinak egiteko balio dute, baldin eta dagokion aurreko eremuan aukera jakin bat hautatu bada, orokorrean, «beste batzuk», «ez», etab.

DERIBATUAK

51.- D9: Balio nominala.

Adierazle baten etorkizunekoak edukiz gero, zer jaso behar dut, erosketa-prezioen konprometitutako zenbatekoa?

- Erosketa-prezioen ordaindutako zenbatekoa jaso behar da.

ONDARE HIGIEZINAK ETA HIGIEZINEN GAINEKO ESKUBIDE ERREALAK

52.- Jaso behar al da egoitza soziala, nahiz eta HM estaldurari egotzi ez?

- Egoitza soziala barne hartzen duen higiezina aurreikuspen-planari atxikitako aktiboa bada, 3.5. ereduaren barne hartu beharko da.

Aurreikuspen-planari atxikita egongo ez balitz, egoitza soziala barne hartzen duen higiezina 3.10. ereduaren («Aurreikuspen-planak ez diren bestelako gizarte-aurreikuspeneko ekintzei atxikitako bestelako aktiboak») jaso beharko litzateke, edo 3.11. ereduaren («Gizarte-aurreikuspenera atxikirik ez dauden bestelako aktiboak »).

IKF/ARRISKU-KAPITALA

53.- IKF/AK7: Komisioa

Aplikatzen diguten % edo urtean zehar eusteagatik metatutako zenbatekoa? Bigarrena bada, ez lirateke itxiera aurretik saldutako IKFak jasoko.

- Bai, ehuneko hainbestekoa da.

54.- IKF/AK11: Eskuratzeko kostua:

Tituluagatik edo posizioaren guztizkoagatik?

- IKF edo Arrisku-kapitaleko erakunde bakoitzaren posizioaren guztizkoa adierazi behar da zenbateko honetan.

GORDAILUAK, KREDITUAK ETA AKZIOAK, ETA 92/2007 DEKRETUAREN 11.3.L ARTIKULUKO SOZINETATEETAKO PARTAIDETZAK

55.- Gordailuen merkatuko balorazioan, halakotzat joko genuke sortutako balioa?

▪ Eremu honetan jasoko da gordailuen balio nominala, estatistika-kontabilitate informazioari dagokion datan sortutako etekinak barne, baldin eta diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioak adierazgarriak ez badira.

56.- Repo-ak gordailutzat jo behar al dira?

▪ Ez, RF gisa jorratu behar dira.

57.- Kontuetan mantendutako likidezia, ordainsari eta eperik ez duena, barne hartu behar al dut?

▪ Bai. Ageriko gordailuak barne hartu behar dira.

AURREIKUSPEN-PLANEI ATXIKITAKO BESTE AKTIBOAK (92/2007 DEKRETUAREN 11.7 artikulua)

58.- 11.7 artikulua araberan, plan bakoitzaren aktiboa honako hauetan gauzatu ahal izango da:
a) Herri Ogasunaren kredituak, zergen atxikipen eta likidazioengatik.

Gure kasuan, 12/31n saldoa bi partidak osatzen dute: batetik, aurreikuspen-planen jardueri dagokiena (Kapitalizazio-prestazioak) eta, bestetik, aurreikuspen-planen ez diren jardueri atxikitakoa (Banaketa-prestazioak).

Ulertzen dugu Banaketa-prestazioei atxikitako aktiboak 3.10. ereduan jaso behar direla, baina ez dugu ikusten non jaso behar dugun Ogasunaren kreditua. Hortaz, 3.8. ereduan bi zenbatekoak gehituta jaso beharko lirake (Kapitalizazioa + Banaketa)?
Horrela izan ezean, zer eremu bete beharko genuke eta zer eredutan?

▪ Hala da, aurreikuspen-planei dagozkien Herri Ogasunaren kredituak 3.8. ereduan («Aurreikuspen-planei atxikitako beste aktiboak [92/07 Dekretuaren 11.7 artikulua]») jaso beharko dira.

Bestalde, aurreikuspen-planen ez diren beste jardura batzuei dagozkien Herri Ogasunaren kredituak 3.10. ereduan («Aurreikuspen-planak ez diren bestelako gizarte-aurreikuspenen ekintzei atxikitako bestelako aktiboak»), «Deskribapena», «Balorazioa» eta «Balantzea» eremuetan.

3.1-3.8 APARTATUETAN JASOTAKO EZ BESTELAKO AURREIKUSPEN-PLANEI ATXIKIRIKO BESTELAKO AKTIBOAK

59.- Eredu horretan barne hartu behar ditugu zordun eta hartzekodunen saldoak?
Hala bada, zer sartu behar da Izena, Balorazioa eta Balantzea eremuetan?

▪ Oro har, atal honetan barne hartuko dira, egokiak izan gabe ere, aurreikuspen-planei atxikitako aktibo guztiak, Erakundeak horien berri eman dezan; bertan azaldu beharko da, zehaztasunez, araudiaren kontrako inbertsioak egitea eragin duten arrazoiak. Gainera, aurreikuspen-planekin lotutako estatistika-kontabilitate informazioari dagokion datan dauden zordunen eta hartzekodunen saldo guztiak barne hartuko dira (92/2007 Dekretuaren 11.7. artikuluan adierazitakoak izan ezik).

60.- Ulertzen dugu hemen jaso behar ditugula Banaketa-prestazioei atxikitako aktiboak, baina zer eremutan jasoko ditugu zordunen eta hartzekodunen saldoak?

▪ Estatistika-kontabilitate informazioari dagokion datan dauden zordunen eta hartzekodunen saldoak, aurreikuspen-planak ez diren gizarte-aurreikuspeneko beste jardura batzuekin lotutakoak. «Deskribapena», «Balorazioa» eta «Balantzea» eremuak erabiliko dira aktibo finantzarioak, ondareak eta higiezinaren gaineko eskubideak ez diren aktiboetarako.

4. ETA 5. EREDUAK

61.- Hornidura teknikoei dagokienez, arrisku biometrikoak hartzen direnean:

- Bizarteko errenta kobratzen ari diren bazkideentzat.
- Bazkide aktiboentzat, baldin eta arrisku-prestazioa badute.

Galdera honako hau da:

Aktiboak esleitu behar dizkiegu hornidura tekniko guztiei ala soilik hornidura matematikoei, zeintzuek (ulertzen dudanez) estaliko baitute goian adierazitakoa?

▪ Hornidura matematikoak honako [aurreikuspen-plan](#) hauetan kalkulatu beharko dira: prestazio definituko aurreikuspen-planetan; errenta aktuariala duten ekarpen definituko planetan; arrisku-prestazioak dituztenetan; inbertsioaren emaitza bermatzen duten planetan (kanpo-bermatzea duten planetan izan ezik); edo aurreko aukeren konbinazioak barne hartzen dituztenetan. Horrelakoetan, hornidura matematiko horien estaldurari dagozkien aktiboak esleitu beharko dira.

62.- Bestalde, Mutua-funtsa gisako aktiboak ditugu, konpromiso orotatik libre. Aktibo espezifikoak esleitu behar dizkiogu horri ere?

- Ulertzen dugu mutua-funtsa gauzatzen duten aktiboei buruzkoa dela galdera.

Mutua-funtsari dagokion zenbatekoari ez zaio aktibo zehatzik esleitu behar berariaz. Edonola ere, berariaz zehaztu behar dira konpromiso orotatik libre dauden aktiboak, baldin eta horien merkatu balioa hornidura matematikoen % 4ren baliokide bada, gutxienez. Hartara, hornidura matematikoen estalduraren superabita barne hartuko da.

63.- Azkenik, esleipen horiek finkoak dira ala aktibo ezberdinak esleitu daitezke epe luzerako partida bakoitza estaltzeko?

▪ Ez, ez dira finkoak. Denboran zehar aldatu ahal izango dira; betiere, indarreko araudian xedatutakoaren arabera aktibo egokiak badira.

7. EREDUA

64.- Egun on, «Fitxategien definizioa, EKD eredu berriak, 1.5. Bertsioa» atalari dagokionez, 7.1.2. Puntuan, «Eremuen formatua», 9. eta 10. posizioetan («Gizonezkoak» eta «Emakumezkoak», hurrenez hurren), zenbakizkoek hiru posizio izan ditzakete. Ulertzen dugu 5 edo 6 posizio beharko lirakeela gutxienez.

▪ Aplikazioan aldaketa bat izan da atal horretan. Adierazitako posizioetan posizio kopurua seikoa da.

KONTSULTA OROKORRAK

65.- HM estalduraren egozpenak zeri egiten dio erreferentzia?

▪ Hornidura matematikoen estaldurari esleitutako portzentajeari egiten zaio erreferentzia, aktibo bakoitzaren arabera. Hornidura matematiko horiek honako [aurreikuspen-plan](#) hauetan kalkulatu beharko dira: prestazio definituko aurreikuspen-planetan; errenta aktuariala duten ekarpen definituko planetan; arrisku-prestazioak dituztenetan; inbertsioaren emaitza bermatzen duten planetan (kanpo-bermatzea duten planetan izan ezik); edo aurreko aukeren konbinazioak barne hartzen dituztenetan. Ondorioz, hornidura matematikorik kalkulatu beharrik ez duten plan edo prestazioetarako ez da eremu hau bete beharko.

66.- Argitu dezakezue nola kalkulatu behar den HM estalduraren egozpena?

- Ikusi 65. galderaren erantzuna.

67.- Balioa negoziagarria ez denean soilik bete beharko dira kotizatu gabeko balioei dagozkien zutabeak? 11.3.ñ i, ii, iii artikulua betetzen duen ala ez adierazteko zutabeei buruz ari naiz.

- Bai. Hala da.

68.- Oro har, ulertzen dut dibisa-eremurik ez dagoenez, kostu-balioak eta egungoak eurotan bete behar ditudala.

- Zuzena. Hala da.

69.- 11.3.ñ artikuluko balio batzuk ditut. Ulertzen dut, printzipioz, Errenta finkoan edo aldakorrean sartu behar ditudala, bakoitzari dagokionaren arabera; baina ikusi dut «Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 11.3.I artikuluko partaidetzak», 3.7.5. eranskinean, ere badaudela balio horiek. Orduan, zalantza daukat eta eredu horretan ere zerbait egin behar dudan.

- 3.7.5. eranskinean, «Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 11.3.I artikuluko partaidetzak» atalaren «Bermea» eremuari dagokiona, 3. eredukoa, Erakundeak egindako inbertsioa titulu-bermedun kreditua denean erabili behar da, bermearen aktiboa zein den adierazita (horien artean egon daitezke 11.3.ñ artikulukoak).

70. Hondatzea: Zer ulertzen dugu hondatze gisa? Hondatzearen ondoriozko hornidura eratua eta kontabilizatua, hala dagokionean?

Edo hondatzetat joko ditugu titulu bakoitzaren ezkutuko gainbalioa-minusbalioa?

- Hondatzetat jo beharko da hornidura eratua eta kontabilizatua; betiere, balioak hondatu egin diren ebidentziarik badago, dagokion hondatzearen testaren emaitzaren arabera. Hondatzea ez da, inola ere, ezkutuko minusbalioen eta, are gutxiago, ezkutuko gainbalioen baliokide izango. Horri dagokionez, ikusi 17. galderaren erantzuna.

71.- Ereduak argiago betetze aldera, jakin nahiko genuke ba ote dagoen eskura eskulibururen bat, XML fitxategian jasota dauden ereduetan bete behar diren eremuen edukia azaltzen duena.

- Aplikazioaren eskuliburu bat egongo da, eta bertan azalduko da haren funtzionamendua.

72.- Jakinarazten ez diren egoerak

Badira egoera batzuk zeintzuen informaziorik ez baitugu, esate baterako, «Ondare higiezinak eta higiezinen gaineko eskubide errealak». Ez daukagu mota horretako aktiboetan inbertitzen duen erakunderik. Kasu horietan, nola jokatu behar da XML fitxategia sortzeko? Irekitze-etiketa; eta ixte-uneke egoera soilik idatzi behar dira? XML fitxategian ez da egoerari buruzko ezer idatzi behar? ?

Kasu horretan ez da dagokion 3. ereduaren karga masiborik egin behar. Edonola ere, erlantz horretan daturik ez dagoela adierazi beharko da aplikazio informatikoan, aurreko ekitaldietan erabili den aplikazioan egin izan den bezala.

73.- Sortutako XML fitxategiak multzokatzeko modua.

Ez dugu argi nola multzokatu behar diren sortzen ditugun karga masiboko XML fitxategiak:

1.- Fitxategi bakarrean: BGAE bakoitzeko fitxategi bat, eredu eta plan guztien datuak jasota. Hau da, BGAE bat aurkeztuz gero, fitxategi bat izango litzateke.

2.- Fitxategi bat eredu bakoitzeko (1. eredua, 3. eredua, 7. eredua): BGAE eta eredu bakoitzeko fitxategi bat, ereduaren egoera bakoitzaren datuak jasota. Hau da, BGAE bat aurkeztuz gero, hiru fitxategi izango lirateke.

3.- Fitxategi bat aurkeztutako egoera bakoitzeko: Hau da, BGAE baten 10 egoera aurkeztuz gero, hamar fitxategi izango lirateke.

Fitxategiak BGAE eta aurkeztutako inprimaki bakoitzeko kargatu behar dira (aurkeztutako egoera); hau da, adierazi duzuen 3. aukeraren arabera, BGAE batek gehienez 14 fitxategi bidali ahalko litzuke: bat 1. ereduarena; hamaika 3. ereduarenak; eta bi 7. ereduarenak.

OSO GARRANTZITSUA: IKUSI 91. GALDERAREN ERANTZUNA.

74.- Urteko eredu berriak sortzeko egin behar ditugun garapenei dagokienez, garatzen ari den aplikazio berrian informazioa txertatzeko beharrezkoak diren XML fitxategien edukari buruzko hainbat zalantza dauzkat:

- Badirudi eredu bakoitzerako XML fitxategi bat sortuko dela, zeinak eredu horren datuak soilik jasoko baititu. Interesgarria litzateke jakitea aurkeztuko ote den XML bat eredu bakoitzeko, edo XML bakarra, eredu guztiak jasota.

Fitxategiak BGAE eta aurkeztutako inprimaki bakoitzeko kargatu behar dira; hau da, BGAE batek gehienez 14 fitxategi bidali ahalko litzuke: bat 1. ereduarena; hamaika 3. ereduarenak; eta bi 7. ereduarenak.

OSO GARRANTZITSUA: IKUSI 91. GALDERAREN ERANTZUNA.

75.- XML fitxategien dokumentuari dagokionez, honako zalantza hau sortu zaigu:

Badirudi eredu bakoitzerako XML fitxategi bat sortuko dela, zeinak eredu horren datuak soilik jasoko baititu. Zuzena da?

Jakin nahi dugu XML bat aurkeztuko den eredu bakoitzeko edo XML bakarra, bertan karga masiboko eredu guztiak jasota; eta, eredu bakoitzeko XML bat aurkeztuz gero, inportazioa era independentean egin daitekeen edo agregatuta.

Zuen iruzkinen zain geratzen naiz.

- Ikusi 74. galderaren erantzuna.

Aurkeztutako fitxategien inportazioa era independentean egin behar da; hau da, banan-banan.

76.- «Plan kodea» eremua

Eremu honen deskribapenean adierazita dago 8 digitu izan behar dituela, baita nola jakinarazi behar den ere.

- En el caso de que los datos estén relacionados con un plan, el código de plan se debe indicar en el campo correspondiente del fichero. Los códigos de plan se pueden ver en el Modelo 1, "Planes de previsión", columna "Código de plan". Este código está formado por 4 dígitos de código de entidad y 4 dígitos de código de plan. Se deberá indicar el numérico correspondiente a los cuatro últimos dígitos. Por ejemplo, 00130001 ➔ plan 1

Edonola ere, egoeretan eremuen deskribapenean beste formatu bat adierazita dago (zenbakizkoa 3):

24	MultiRENTVAR – RENTVAR – Código Plan CodPlan	Númerico(3)	Longitud	X	Debe corresponder a un plan de la entidad (Valor 0 – Sin plan)
----	---	-------------	----------	---	--

▪ 1. ereduaren «Aurreikuspen-planak» atalean, planen kodeak dagoeneko kargatuta egongo dira erakunde bakoitzerako, «BGAEen erregistroa» aplikazioan ezarritako erregistroen arabera. Kodearen egitura zortzi digitukoa izango da: lehenengo laurek BGAE identifikatzen dute; azken laurek zenbaki korrelatiboak esleitzeko aukera ematen dute, planen Erregistroan alta egiten zaien ordenaren arabera. Hortaz, baliteke BGAE berean 9.999 plan izatea (gehienez), baina normalena izango da gehienez hiru posizio erabiltzea. Hori dela eta, planari dagozkion zenbaki korrelatiboen lehenengo digitua, oro har, 0ren baliokidea izango da.

XML fitxategien bitartez karga masiboak egin behar diren kasuetan, (1. ereduaren «Sustatzaileak eta Babesleak» atala; 3. ereduaren atal guztiak [salbu eta «Aurreikuspen-planak ez diren bestelako gizarte-aurreikuspenenerako ekintzei atxikitako bestelako aktiboak» eta

«Gizarte-aurreikuspenera atxikirik ez dauden bestelako aktiboak»]; eta 7. ereduaren «Gizarte-aurreikuspeneko planen datuak» [I. zatia], eta «Gizarte-aurreikuspen-planek estalduran ez dituzten gertaerak» zein «Gizarte-aurreikuspen-planek estalduran ez dituzten bestelako gertaerak» [II. Zatia]), «Plan kodea» eremuan nahikoa izango da dagokion planaren zenbaki korrelatiboen azken hiru digituak sartzea, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera.

77.- Ez dauzkagu 1.2 eredu estatistikorako XML diseinuak, ezta balantze eta emaitza-kontuen ezein eredu kontablerik ere. ?

Aipatu fitxategiak ezin dira karga masibo bidez bete. XML fitxategien bitartez karga masiboa egin beharko da soilik 1. ereduaren «Sustatzaileak eta Babesleak» atalean; 3. ereduaren atal guztietan (salbu eta «Aurreikuspen-planak ez diren bestelako gizarte-aurreikuspenenerako ekintzei atxikitako bestelako aktiboak» eta «Gizarte-aurreikuspenera atxikirik ez dauden bestelako aktiboak») eta 7. ereduaren «Gizarte-aurreikuspeneko planen datuak» [I. zatia], eta «Gizarte-aurreikuspen-planek estalduran ez dituzten gertaerak» zein «Gizarte-aurreikuspen-planek estalduran ez dituzten bestelako gertaerak» [II. Zatia] eremuetan.

Mesedez, esan diezadakezue zerbait honi buruz?

78.- Planaren kodea? Erakundearena besterik ez daukagu. Pentsatzen dut zenbakia formalki emango digutela, edo geuk esleitzeko bete beharreko irizpideak adieraziko dizkigutela.

- Ikusi 75. galderaren erantzuna.

79- EKD eredu berrien xml fitxategiaren inguruan sortu zaizkigun hainbat zalantza doaz erantsita:

- Ulertzen dugu zorroko ereduaren «Plan kodea» eremuak plan ofizialaren kodeari egiten diola erreferentzia; hortaz, bi plan eta plan bakoitzean jaulkitzaile bakarraren akzioak dituen BGAE batek bi linea eman beharko ditu errenta aldakorreko ereduaren bi posizioekin.
 - Bai. Datuak plan bakoitzeko sartu behar dira. Plan bitan aktibo bera badago, aktibo hau plan bakoitzean sartu beharko da, dagozkion datuak jasota.

80.- Izena beharrezkoa da ISIN=0 kasuetan soilik?

- Bai.

81.-Jaulkitzailearen etiketan, «jaulkitzaileen mantenua erlaitzaren arabera balioak» soilik onartzen dira. Zer da mantenua erlaitza?

▪ Jaulkitzaileen mantenua erlaitzak aukera ematen du BGAE bateko jaulkitzaileen eta taldeen erregistroa eguneratzeko. Baina aipatu erregistroaren eguneratzea datuen karga masibo bidez egin ahal izango da, dagokion XML fitxategiaren bitartez.

82.- BGAEen urteko KEDen inguruan sortu zaizkigun bi zalantza dakarkigu:

- 1) XSD motako fitxategi bat emango zaie erakundeei XML fitxategien egitura balioztatzeko?

Bai. XSD fitxategiak emango zaizkie erakundeei.

83.-

- 2) XML definitzen duen dokumentuan zehaztuta dagoenez, fitxategiaren linearen batean akatsa badago atzera bota egingo da erabat. Ulertzen dugu horrek balioztatze-akats bati egiten diola erreferentzia, XML fitxategiak egitura okerra duelako. Baina, posible da zenbait datu galdu dituen fitxategi batek karga egitea, eta karga bukatutakoan gainerako datuak eskuz sartzea?

Balioztatze-akatsa ez da egitura okerra izateagatik soilik gertatzen. Eredu bat okerra delako ere gertatzen dira balioztatze-akatsak; adibidez, data okerra delako, beharrezkoa den eremu bat bete ez delako, kodea existitzen ez delako, etab.

Edonola ere, bete gabe bidaltzen diren eremuak, beharrezkoak ez badira, gerora bete ahal izango dira.

84.- EKD ebazpenaren arabera, urtero eta hiru hilero aurkeztu beharreko ereduak berberak dira; horrela, 4. hiru hileroan aurkeztu beharreko ereduak berdin-berdinak izango lirarteke, salbu eta kasuan-kasuan zehaztasun partikularrak baleude.

Ulertzen dugu eredu gehienetan (hala nola datu orokorrak, balio-zorroak, balantzeak eta emaitza-kontuak) dagokion aldiaren itxierako informazioa aurkeztu behar dela EKD bakoitzean; baina beste datu batzuei dagokienez (hala nola ekarpenak, prestazioak, bazkideak, etab.), zalantza daukagu zer aldiri dagozkion hiruhileko ereduetan jaso behar diren datuak. Hain zuzen, jakin behar dugu hiruhilekoaren amaieran, urtarrilaren 1etik metatutako datuak eman behar diren ala hiruhileko naturalean bertan jasotakoak soilik eman behar diren.

- Ekitaldi ekonomikoaren 4. hiru hileroari dagokion informazioaren baitan (hurrengo ekitaldi ekonomikoko martxoaren 1a baino lehen bidali beharrekoa), bukatutako ekitaldi ekonomikoari dagozkion behin-behineko datuak jasoko dira. Hala eta guztiz ere, urteko informazioaren baitan (erreferentziako ekitaldi ekonomikoa amaitu eta hurrengo lau hilabeteetan bidali beharrekoa), bukatutako ekitaldiari dagozkion behin betiko datuak jasoko dira.

Eredu guztietarako eskatutako estatistika-kontabilitate informazioak, hiruhilekoak zein urtekoak, dagokion datetan metatutako datuak jasoko ditu.

EGUNERAKETA, 2011/06/21 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

85.- Jaulkipenaren saldo nominala etiketan jaso beharreko balioa alfanumerikoa da, 100 posizioduna. Zuzena da?

- Bai. Zuzena da.

86.- Arratsalde on.

IKF eta Arrisku-kapitalaren zorro-ereduaren 7. eremuari dagokion 53. galderari erreparatuta, ez zaigu argi geratu zer komisio motari buruz ari den. BGAEaren zorroan funtsaren kudeatzaileari dagokin kudeaketa-komisioaren %a da?

Eskerrik asko.

Ondo izan.

- Bai. BGAE zorroan dagoen IKFaren komisioaren %a da.

87.- Oraindik ez dut ulertzen zer ezberdintasun dagoen INTERES-TASA EFEKTIBOAREN eta EGUNERATZE-TASAREN artean.

Oker ez banago, lehendabizikoa 2010/12/31n eskuratzen dudan TIR da, bonua Balantzean jarritako prezioan balioztatuta. (Epemuga-zorroan dudan edo merkatu-zorroan dudan kontuan hartu gabe).

Bigarrena ez dakit zeri dagokion, interpretatzen baitut 2010/12/31ko TIR dela, hau da, lehenengoaren berdina.

- Interes-tasa efektiboa: ikusi martxoaren 16ko 86/2010 Dekretua, Aseguru-erakundeen Kontabilitate-plana EAEko BGAEen bereizgarrietara egokitzea onestekoa; hain zuzen ere, ikusi 13. orrialdeko bigarren paragrafoa.

- Eguneratze-tasa: Ikusi 11/06/09an igorritako dokumentuaren 12. galdera, «Erakundeen kontsultak - EKD 090611».

88.- 18 eta 21. galderek 16.1 b) artikuluari egiten diote erreferentzia, eta uste dut 21.ean 16.1 c) izan behar duela.

Hala da. RF20 eremuaren izenean dago akatsa: «2009-04-29ko Aginduaren 16.1b) artikulua betetzen du». Eremu horren izen egokia hau da:

«2009-04-29ko Aginduaren 16.1 artikulua betetzen du».

Gainera, gauza bera gertatzen da Errenta aldakorreko eremuan. RV17 eremuaren izen egokia hau da: «2009-04-29ko Aginduaren 16.1 artikulua betetzen du»

89.- Errenta finkoko prezioa hornitzaile edo agente ezberdinek ematen dute, ez baitago prezio bakarra ematen duen «burtsarik». Hornitzaile bat baino gehiago duten bonuetan, 16.1b) artikuluari dagozkiola iritzi diot, eta bakarra dutenak 16.1c) artikuluari; horietan guztietan zehaztu dut zer agenterengandik hartu dudan prezioa, baina ez dakit hori den adierazi behar dena.

RF20 «2009-04-29ko Aginduaren 16.1 artikulua betetzen du» eremua betetzeko, RF1 «Negoziazarritasuna» eremuan «Bai» aukera adierazi ondoren, hiru aukera daude:

- Lehenengoa: «Azken hiru merkatu kotizazio-data».
- Bigarrena: «Prezioen eskaintza publikoa duen finantza-agentea»
- Hirugarrena: «Beste batzuk»

Lehenengo aukera markatu behar da, baldin eta merkatu arautuetan negoziatutako errenta finkoa bada.

Bigarren aukera bete behar da, baldin eta merkatu arautu batean negoziatorako onartu gabeko errenta finkoa bada, edo, negoziatorako onartuta ere, kotizazioa edo prezioa nahikoa adierazgarriak ez badira. Horrelako kasuetan, hornitzaile edo agente batek edo gehiagok eskaintzen badituzte prezioak publikoki, negoziatzeko eta etiketak itzeko, eremu hau bete beharko da.

Hirugarren aukera hautatuko da, baldin eta negoziagarritasuna justifikatzen duten beste inguruabar batzuk biltzen badira.

90.- Arrisku-prima kalkulatzeko zor publikoa erabili behar da erreferentzia gisa. Zer zor publiko hartu behar da erreferentzia gisa? Espainiarra? Alemana? Bonua jaulki duen herrialdekoa?

Interes-tasaren eguneratzea zehazteko erreferentzia gisa har daiteke, hala zor publiko espainiarra, alemana nola bonua jaulki duen herrialdekoa; betiere, herrialdeko arriskuagatik hautatutako Zorraren gaineko arrisku-priman barne hartzen den tarte kongruentea bada.

91.- Egun on. BGAEaren datuen inplementazio berriak eragin digun zalantza azaldu nahi dut mezu honetan.

1. eremuan, zeinak azpiero bakarria baitu (bazkideen datuak...), ulertzen dugu XML fitxategi bakarria sortu behar dela; baina 3. eta 7. ereduatarako (zenbait azpiero biltzen dituzte) XML fitxategi bakarria sortu behar da azpiero guztiekin (taldeak, jaulkitzaileak, errenta finkoa, ...)? Edo XML fitxategi bat sortu behar da azpiero horietako bakoitzerako? Hau da, 13 izango dira 3. ereduaren kasuan («Inbertsio-zorroa») eta hiru 7. ereduaren kasuan («Estatistiko»)?

Fitxategiak BGAE eta aurkeztutako inprimaki bakoitzeko kargatu behar dira; hau da, BGAE batek gehienez 17 fitxategi bidali ahalko lituzke: 1. ereduaren bat; 3. ereduaren 11; 7. ereduaren 3 eta beste bi osagarri, bata taldeei eta bestea jaulkitzaileei dagokiona.

Dokumentu honen edukia eguneratuz joango da erakundeek kontsulta berriak planteatzen dituzten neurrian.

EGUNERAKETA, 2011/09/15 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

92.- Egun hauetan komentatu dugunez, BGAE eredu berriei buruzko zenbait galdera ditugu. Pertsona egokiari helarazi nahiko genizkioke, fitxategien bidalketa; eta formatuari buruzko zenbait alderdi argitze aldera.

Hauek dira garrantzitsuenak:

- XSD luzapena duen fitxategiari dagozkionak (luzapen horretan jasota dago bidali beharreko XML fitxategiaren eskema). Bidali beharreko beste dokumentazio batean (CNMV edo DGSari dagokionean, adibidez), XSD bat bidali zitzaigun balioztatu ahal izateko aplikazioak sortutako fitxategiak (XML) bete egiten duela eskatutako eskema eta organismo erregulatzailearen dagokion aplikazioak ez duela atzera botako. Egin izan diren aldaketa guztien artean, ez gaude seguru fitxategi hori existitzen den ala ez; hortaz, oso lagungarri izango litzaiguke zuek bidaltzea, ahalik eta azkarren jaso ahal izateko. Gainera, ez daukagu ez balioztatze-fitxategirik ez eskulibururik.

Erakunde honi bidalitako dokumentuan, «EKD Erakundeen kontsultak» izenekoan, honakoa jasota dago 82. galderan: «Bai. XSD fitxategiak emango zaizkie erakundeei». Era berean, Erabiltzailearen Eskuliburua gaurko datarekin igorriko da.

- fitxategien aldaketen bitartez, eremuak gehituz joan dira, eredueta batzuk osatu ahal izateko. XML fitxategian barne hartutako eremu horiek ez dira kontsultetan islatu eta, ondorioz, argitu behar dugu kontsulta horiek aldatzeko asmoa dagoen (aldaketak egin aurretikoak baitira) eta horiekin nola jokatu beharko den.

Aipatu dokumentuaren amaieran, honakoa adierazita dago: «Dokumentu honen edukia eguneratuz joango da erakundeek kontsulta berriak planteatzen dituzten neurrian». Sortzen den beste edozein zalantza bidaltzeko aukera dago; guztiak erantzungo dira.

Gure bezeroei zerbitzu eraginkorra emate aldera, eta epemugekin funtzionatzen dugula kontuan hartuta, zalantza hauek eta sor litezkeen beste batzuk argitzea beharko nuke. Hortaz, gure aburuz, oso mesedegarria izango litzateke harremanetarako pertsona bat izatea, gai hauek joratzeko edota zalantzak argitzeko bilera bat antolatzeko.

93.- Ez zaigu argi geratu 61. galderaren erantzuna, eta honako hau zehaztu nahi dugu aribidean dauden prestazioei dagokienez:

- Planen aurrezki-prestazioei dagozkien hornidura matematikoak: zalantzak dauzkagu bi kontzepturen inguruan:

A aukera: Kalkuluen arabera, aurrezki-atalak hurrengo urtean sortuko dituen konpromisoen egungo balioa.

B aukera: Kalkuluen arabera, aurrezki-atalak hurrengo urtean sortuko dituen konpromisoen egungo balioa, baina errenta modura ordainduko diren prestazioetan soilik.

- Planen arrisku-prestazioei dagozkien hornidura matematikoak: Kalkuluen arabera, hurrengo urtean zehar ordainduko den kapital aseguruaren egungo balioa kalkulatu dugu hemen, baina arrisku-prestazioetan aseguratutako kapitalaren % 50 estaltzen duen berraseguru-kontratua dugu. Guztia hornitu behar dugu ala geuk estaltzen dugun zatia soilik?

Egindako kontsultan oinarrituta, eta eremu jakin batzuen edukia argitze aldera, behin betiko aplikazioak honako aldaketa hauek izango ditu:

4. ereduak:

- «Planak eragindako prestazioetarako hornidura matematikoak» izeneko eremuak izen hau hartuko du: «Planari lotuta aribidean dauden hornidura matematikoak».
- «Planari lotuta aribidean dauden prestazioetarako hornidura matematikoak» izeneko eremuak izen hau hartuko du: «Planak sortutako konpromisoen hornidura matematikoak».
- «Planari lotutako aurrezki-prestazioetarako HM» izeneko eremuak izen hau hartuko du: «Planari lotutako aurrezki-konpromisoetarako HM».
- «Planari lotutako arrisku-prestazioetarako HM» izeneko eremuak izen hau hartuko du: «Planari lotutako arrisku-konpromisoetarako HM».

Bi aukera posible (A eta B) buruzko galdera zehatzari erantzunez, hauxe da erantzuna: Aurretik ere esan dugunez, eremu horietan jasoko da sortutako konpromisoen ondoriozko hornidura matematikoen guztizkoa, aurrezki-prestazioei eta arrisku-prestazioei dagozkien datuak bereizita.

Bigarren galderari dagokionez, guztizkoa kontuan hartuta egin beharko da hornidura, aktibo bat berraseguraturako zenbatekoan aitortu zein ez.

EGUNERAKETA, 2011/09/19 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

94.- BGAEek aurkeztu beharreko estatistika-kontabilitate dokumentazioaren (EKD) ereduie dagokienez, honako zalantza hauek argitzea nahiko genuke:

1.- Pastor Previsión erakundearen 2010 urteko kontu ikuskatuetan (Pastor Vidak administratzen duen BGAEa da), 2010/12/31n zorroan ageri diren deribatuen arrazoizko balioa ez dago Balantzearen ezein ataletan erregistratuta, eguneroko likidazioa duten etorkizunekoak direlako. Hala, irizpide hau bete dugu: «Eguneroko likidazioa duten etorkizuneko kasuan, ekitaldiaren itxieran deribatuen arrazoizko balioa zero izango da, balioaren aldaketak likidatuz joan baitira» Deribatuen ereduaren baitan, deribatuak balantzearen zer ataletan islatuta dauden adierazteko eremu bat dago (beharrezkoa); gure kasuan, nola informatuko dugu deribatuen posizioen inguruan?

- Deribatuen alta egingo da, eta «Balorazioa» eremuan 0 balioa adieraziko.

2.- Deribatuen ereduari dagokionez, honako eremu hauek zeri dagozkion argitzea eskatzen dizuegu:

Datu Tipoa

Estandura duen elementua Zenbakizkoa

Estandura duen elementuaren zenbatekoa Zenbakizkoa

Posizio garbia Zenbakizkoa

- «Estandura duen elementua» eremua ez da zenbakizkoa. Testu-eremua da, 150 karaktere bitartekoa. Estandura zein aktibotarako kontratatu den identifikatzen du.

- «Estandura duen elementuaren zenbatekoa» eremuan estalduraren kontratazioari lotutako aktiboaren zenbatekoa adierazi behar da.

- «Posizio garbia» eremuan estaldura duen aktiboaren zenbatekoa adierazi behar da, kontratatutako estaldura kontuan hartuta.

95.- Jaulkitzaileen ereduaren, jaulkitzailea BGAEaren Sustatzaile/babesle den adierazi behar da «sustatzailea/babeslea» eremuan?

- Bai, hala da.

Adibidez: zenbait jaulkitzailek (Alemaniako gobernuak, kasu) E izan beharko lukete eremua horretan, BGAEen sustatzaile/babesle ez direlako.

96.- Lortu dugu aplikazioan sartzea eta «0. ereduari» dagozkion datuak sartzea. Sinatzerakoan, Euskadiko Pentsioak BGAEko Idazkariaren txartela sartzean, sistemak ez du identifikatzen (Izenpe txartela 2013/02/04ra arte dago indarrean).

- Joan den ostiralean, 09/15ean, bidalitako lehendabiziko mezuan, honako hau adierazi zen: «Mezu honi erantsita dagoen "Erabiltzailearen Eskuliburua" dokumentu berria eguneratzeko kontuan hartu da aplikazioaren zein bertsio gaituko den, salbu eta honako balioztatze hauen kasuan: 1. Puntua: "Aurretiko baldintzak", 0. ereduaren sinadura; eta 3.3. Puntua: "Idazkariaren eta presidentearen balioztatzea", 1etik 7ra bitarteko ereduaren balioztatzeak». Izan ere, aurretik

adierazi denez, probak egiteko soilik egongo da aplikazioa erabilgarri. Aplikazioa ireki ondoren EKD betetzeko aukera dagoenean, aplikazioaren behin betiko bertsioa ere «Erabiltzailearen Eskuliburu» honen arabera izango da. Hau da, «Presidenteak balioztatzea» eta «Idazkariak balioztatzea» botoien egungo funtzionamendua ez da zuzena. Hori dela eta, probaldian ez da botoi horiek erabiltzea beharrezkoa duen probarik egin behar.

EGUNERAKETA, 2011/09/20 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

97.- Aplikaziotik irten naiz eta, sisteman berriro sartzen saiatzean, ez dit aplikazioan sartzen uzten, edozein txartel erabilita ere (Erakundekoa, Presidentearena eta Idazkariarena).

Zergatik?

▪ Aplikazioan probarako sarbideak erakundearen txartelarekin soilik egin behar dira. Inola ere ez dira presidentearen edo idazkariaren txartelak erabili behar aplikazioetan sartzeko. Txartel horiek ez dira probaldian erabili behar. Estatistika-kontabilitate dokumentazio balioztatu eta sinatzeko erabiliko dira soilik, berau betetzeko ofizialki irekitzen denean, Erabiltzailearen Eskuliburuan eta 2011/09/15ean bidalitako mezuan adierazitakoaren arabera.

98.- EKD 2010 aplikazioan sartu naiz, eta egiaztatu dut erakunde honek dituen aurreikuspen-plan guztiak zeudela. Zenbait arazo aurkitu ditut:

a) 2011 ekitaldian abiatutako bi aurreikuspen-plan daude eta, hortaz, ez dute 2010 ekitaldirako daturik. Jakin beharko nuke ea 2010 ekitaldiko EKD dokumentazioan jaso behar diren edo zerrendatik ezabatu behar diren. Ezabatu behar izanez gero, eskertuko nuke nola ezabatu behar diren azalduko bazenidate, edota ezabatu daitezkeen ala ez esango bazenidate. Aipatutako aurreikuspen-planak honako hauek dira:
XXXX eta FFFF

b) Aurreikuspen-plan hau bikoiztuta dago:
WWWWW

Hori dela eta, aurreikuspen-plan hori jaso duten bi lerroetako bat ezabatu egin beharko litzateke. Mesedez, azaldu nola ezaba dezakedan edo zuek ezaba dezakezuen:

▪ Proba-bertsioan ezin dira ezabatu ez 2011ko planak ez bikoiztuta dagoena. Edonola ere, horrek ez die karga masiboko probei eragiten. XML fitxategi bidezko datu-karga zuzen egin ahal izango da, eta 2011ri dagozkion planak eta plan bikoiztua daturik gabe geratuko dira. Behin betiko bertsioan zuzendu egingo dira planen inguruko gorabehera horiek.

▪ Antzeko egoeretan (kargatutako planen eta 2010/12/31n benetan existitzen direnen arteko egokitasunik ez badago), erakundeei eskatzen zaie Zuzendaritza honi jakinarazteko eta detektatutako guztiak adierazteko. Edozein kasutan, aurreko paragrafoan adierazi legez, probak egin ahal izango dira 2010/12/31ko egoerari dagozkion planak kargatuta ere.

EGUNERAKETA, 2011/09/21 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

99.- Gorabehera bat izan dugu BGAEetako estatistika-kontabilitate dokumentazioa (EKD) era telematikoan izapidetzeko aplikazio informatikoan sartzen saiatzean. Ziurtagiria hautatuta (Erakundearen txartela) eta PIN kodea sartuta, jarraian adierazita dagoen akatsa ageri zaigu:

«Ez da aurkitu IFK horri dagokion erakunderik erabilgarri».

BGAEaren datuak hauek dira:

Aurreikuspenaren oinarrizko datuak, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
IFK: V-01059617

Eskertuko nizueke gorabehera hori nola konpondu azalduko bazenigute.

- Datu-basea moldatzen ari da IFK zuzena sartu ahal izateko. Aldaketa bukatzen denean, berehala jakinaraziko zaizue. Uste dugu gorabehera konpontzeko ez dela 48 ordu baino gehiago beharko.

Erakunde guztiei eskatzen diegu, beraz, aplikazioan sartzean arazo hau antzemanaz gero, berehala jakinaraz diezagutela.

100.- Estatistikoak ez du funtzionatzen, akats ugari ematen ditu. Planen zerrendan lehenengo orria soilik agertzen da, eta ezin da hurrengora igaro.

Gainera, harritu egin nau ikusteak planei esleitu zaien kodifikazioak ez duela hasiera batean esleituko zen sortze-dataren arabera sekuentzia-irizpidea betetzen. Espero dut ez dela behin betiko kodifikazioa izango. Planaren kodea funtsezko datua denez, hala fitxategiak kargatzeko nola BGAE banakakoen arteko intsuldaketak egiteko sortutako kodifikaziorako, komenigarria litzateke planaren sortze-dataren irizpidea aplikatzea.

- Planei esleitu zaien kodifikazioa bakarra eta bakoitzerako iraunkorra da. Hortaz, hori izango da plan bakoitzerako behin betiko kodifikazioa.

EGUNERAKETA, 2011/09/22 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

101.- Planetan ez da daturik adierazten «Sistema», «Hasierako likidazio-balioa» eta «Bukaerako likidazio-balioa» zutabeetan. Geuk bete behar ditugu?

- Bai.

102.- 1. ereduaren «Kontratu-erreferentziak» azpiatalean, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak eta probintziak sartzeko aukera ematen du soilik. Gure kasuan, beste probintzia batzuetako erakundeekin kontratatuta dauzkagu bai aktiboen kudeaketa bai balioen gordailutzea eta zaintzea.

Nola konpon dezakegu arazo hori?

- Behin betiko bertsioan konponduko da. Probaldirako, sartu aukera posibleen arteko lurralde faltsu bat.

103.- Hainbat erakunde zailtasunak izaten ari dira 2. ereduaren betetzeko, aplikazioak ez baitu aukerarik ematen zenbait epigrafetan balio negatiboak sartzeko. ▪ Zeinu hautatzeko aukera aplikazioaren behin betiko bertsioan zuzenduko da. Probaldian, ereduaren betetzeko, datuak aldatu daitezke edo beste epigrafe batean txertatu.

EGUNERAKETA, 2011/09/26 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

104.- Beste gauza bat: probaldian sartzen ari garen datuak gorde egingo dira, ala berriro sartu beharko ditugu?

Ondo izan.

- Probaldia bukatutakoan, irailaren 16an zegoen egoerara itzuliko da; hau da, irailaren 19tik eta 30era bitartean sartutako datuak ez dira gordeko.

105.- Galdera bat egiteko aprobetxatuko dut: ulertzen dut EP307 ereduaren, gordailuei buruzkoan, ez direla kontu korranteak kontsignatu behar eta horiek ez direla ezein zorro-eredutan jakinarazten (3 ereduak). Konfirma diezadakezu, mesedez? Eredu honi dagokionez, ... oharrak egiteko 13 eremu ditu! Ez da guztien berri ematen...

- Ordainsari eta eperik gabeko kontu korranteetan mantentzen den likidezia, hau da, ageriko gordailuak, 3.7. ereduaren barne hartu behar dira («Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta

92/2007 Dekretuaren 11.3.l) artikuluko sozietateetako partaidetzak»). Kasu horietan, «0,00» epea sartu beharko da.

- «Oharrak» eremuan izan ezik (ez da beharrezkoa eta, behar izanez gero, Erakundeak egoki iriztitako bestelako inguruabarrak azaltzeko erabili ahal izango da), «Oharrak» eremu guztiak jakinarazi beharko dira, kasu bakoitzerako analisi-taulan xedatutakoaren arabera. (Edonola ere, 3.3. «Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 92/2007 Dekretuaren 11.3.l) artikuluko sozietateetako partaidetzak» ereduaren «Oharrak» eremuak 14 dira, ez 13. Ikusi dokumentuak: Erabiltzaileen Eskuliburua eta XML fitxategiak, joan den 09/15ean posta elektronikoko bidez bidalitakoak.

106.- Bestalde, eredu kontableak ez dira XML fitxategian esportatzen, ez dago horretarako esportaziorik; eskuz pikatu beharko dituzue Eusko Jaurlaritzaren programan, nahiz eta guk informazioa konfigurazio kontablearen aurretiko kontsultan atera. Ez dakit hori ere aurrerago konpontzeko asmoa dagoen, horren berri ere eman nahi baduzue ere.

- Hala da, Balantzea, Galdu-irabaziak eta Ondare Garbiari dagozkion eredu kontableak (2. eredua) ez dira XML fitxategietan esportatzen. Beraz, pikatu egin behar dira.

107.- Erakundearen ziurtagiriaren bidez lortu dugu aplikazio informatikoan sartzeara, estatistika-kontabilitate dokumentazioa (EKD) era telematikoa izapidetzeko. Dirudienez, kargatutako datuak (IFK barne) zuzenak dira, baina saioa ixtean honako akats-mezu hau agertzen da: «Ez da aurkitu IFK horri dagokion erakunderik erabilgarri».

Jakin nahiko genuke zer nolako intzidentzia duen akats horrek. Hau da, jakin nahiko genuke datuak sartzeko hasi gaitzkeen ala, barne-mailan, ez dagoen BGAEa aitortuta eta akatsa konpondu arte itxaron behar den.

- Saiatu saioa edo nabigatzailea ixten, eta berriro sartzeko. Behin betiko bertsioan, saioa ixtean automatikoki itxiko da nabigatzailea.

EGUNERAKETA, 2011/09/27 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

108.- Errenta finkoko ereduaren «Merkatu balioa» eremuak barne hartzen ditu sortutako interesak eta kobratu gabeak? Bestela, zer eredutan barne hartu beharko genituzke?

- «2009/04/29ko Aginduaren 16.1a) artikulua betetzen du» eremuaren lehenengo aukera (1.- «Azken hiru merkatu kotizazio-data») betetzeagatik merkatu arautuetan errenta finko negoziagarriko tituluei dagokien «Merkatu balioa» eremuan, kupoi gabekoaren gehi kupoi jarraituaren kotizazioa barne hartu beharko da hautatutako kotizazio-datan, azken hiru merkatu-saioen barruan.

109.- Bestalde, probaldian aplikaziorako sarbidea gaituta dago orain, irailaren 30era arte. Aurreikusten al da noiz gaituko den egiazko bertsioa eta, egiazko bertsioa ezarritakoan, zein izango den betetzeko epea? Aplikazioa gaitzen den unetik hilabeteko epea izango da behin betiko bertsioan datuak sartzeko?

- Aplikazioaren egiazko bertsioa irekitzeko behin betiko data egiten ari diren proben emaitzen arabera ezarriko da.

Jakina, aplikazioaren egiazko bertsioa martxan jarri ondoren, hilabeteko epea emango da 2010/12/31ko EKD betetzeko.

110.- Merkatu balioa eta Arrazoizko balioa eremuak. Kupoi gabeko balioa da, ala kupoiduna? Errenta Finkoa

- «EKD - Erakundearen Kontsultak» dokumentuaren 108. galderan adierazienez, «2009/04/29ko Aginduaren 16.1a) artikulua betetzen du» eremuaren lehenengo aukera (1.- «Azken hiru merkatu kotizazio-data») betetzeagatik merkatu arautuetan errenta finko negoziagarriko tituluei dagokien «Merkatu balioa» eremuan, kupoi gabekoaren gehi kupoi

jarraituaren kotizazioa barne hartu beharko da hautatutako kotizazio-datan, azken hiru merkatu-saioen barruan.

Bestalde, «EKD - Erakundeen Kontsultak» dokumentuaren 11. galderan adierazi denez, arazoizko balioari dagokion eremua RF balio ez negoziagarrietarako soilik bete behar da (negoziagarritasun irizpideak betetzen ez dituztenak), horien arazoizko balioa barne, zeina etorkizuneko diru-fluxuak kenduta zehaztu behar baita.

111.- Interes-tasa efektiboari dagokion eremua: gure aktibo guztiak A3 atalean sailkatuta daude, «Galdututako bitartez arazoizko balioan balioztatutako bestelako aktiboak». Interes-tasa efektiboaren eremua ez dago gaituta. Gauza bera gertatzen da kostu amortizatuaren eremuarekin, zeina soilik bete behar baita zorroa A6 - «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» atalean sailkatuta badago?

▪ Hala da. (Ikusi RFari dagokion analisi-taula 09/15ean posta elektronikoko bidez bidalitako Erabiltzailearen Eskuliburuan, 39. orrialdean).

112.- «2009/04/29ko Aginduaren 19. artikuluko instituzio eta organismoen bermea» eta «2009/04/29ko Aginduaren 19. artikuluko instituzio eta organismo jaulkitzaileak» eremuak. Artikulu horretan aipatzen dira inbertsio-mugak, kontuan hartuta ea balio horiek Estatuak edo antzekoek jaulkitzen dituzten edota bestelakoek jaulkitzen dituzten; baina ez dugu ulertzen nola bete behar diren 2 eremu horiek. Zer ezberdintasun dago Bai edo Ez betetzen badugu?

▪ «2009/04/29ko Aginduaren 19. artikuluko instituzio eta organismo jaulkitzaileak» eremuan «Bai» jartzen badugu, aktiboaren jaulkitzailea 2009/04/29ko Aginduaren 19. artikuluko instituzio edo organismoen artean dagoela esan nahi du. Ostera, «Ez» jartzen badugu, kontrakoa izango da.

▪ «2009/04/29ko Aginduaren 19. artikuluko instituzio eta organismo jaulkitzaileak» eremuan «Bai» jarriz gero, izan daiteke, aktiboaren jaulkitzailea 2009/04/29ko Aginduaren 19. artikuluko instituzio edo organismoen artean egon ez arren, aipatu artikuluari lotutako instituzio edo organismoetako baten bermea dagoela. Ostera, «Ez» jartzen badugu, kontrakoa izango da.

113.- 3. ereduari dagokionez, errenta finkoari dagokion atalean honako zalantza daukagu: Zorroan betiko errenta finkoko balioak edukiz gero, epemuga definiturik gabe, ez dakigu nola bete behar diren Iraupena eta Epemuga eremuak. Iraupena eremuan gutxi gorabeherako iraupena jar genezake, baina Epemuga eremuan nahitaez bete behar da dataren formatua. Zer data jakinarazi beharko genuke?

▪ Betiko errenta finkoko kasuetan, data faltsua sar daiteke, 9999/12/31 formatuan.

114.- ereduari buruzko beste galdera bat.

Eredu honetan:

Errenta finkoa, balantzearen gakoari dagokion eremuan honako hau adierazita dago:

Negoziagarria: 1 = A2	Ez negoziagarria: 1 = A3
2 = A3	2 = A4
3 = A4	
4 = A6	

Errenta aldakorra erredua,

Negoziagarria: 1 = A2	Ez negoziagarria: 1 = A3
2 = A3	2 = A4
3 = A4	
4 = A11	

Egituratuak erredua,

Negoziagarria: 1 = A2	Ez negoziagarria: 1 = A3
2 = A3	2 = A4
3 = A4	

Deribatuak erredua,

Negoziagarria: 1 = A2/A1	Ez negoziagarria: 1 = A3/A2
2 = A3/A2	2 = A7/A4

3 = A7/A4

Higiezinak eredua,

1=A9

IKF eta arrisku-kapitala eredua,

1 = A2

2 = A3

3 = A4

Gordailuak eredua,

1 = A1

2 = A2

3 = A3

4 = A4

5 = A5

6 = A11

Atxikitako bestelako aktiboak eredua **1 (3.8)**,

1 = A5

2 = A8

Atxikitako bestelako aktiboak eredua **2 (3.9)**,

1 = A1

2 = A2

3 = A3

4 = A4

5 = A5

6 = A6

7 = A7

8 = A8

9 = A9

10 = A10

11 = A11

12 = A12

13 = A13

14 = A14

Atxikitako bestelako aktiboak eredua **3 (3.10)**,

1 = A1

2 = A2

3 = A3

4 = A4

5 = A5

6 = A6

7 = A7

8 = A11

Etab.

Ikus daitekeenez, balioak ez datoz bat eredu batzuetan eta besteetan. Batera daitezke forma balio horiek, adibidez, 3.9. ereduan egiten den bezala, esportatu beharreko zenbakia balantze gakoaren izateko eta, horrela, zenbaki horiek eredu guztietan berdinak izateko? Horrela errazagoa izango litzateke, bidali beharreko XML fitxategiaren esportazioa eta ulermena bat etortzeko.

- Ez, ezin dira balio horiek bateratu.

EGUNERAKETA, 2011/09/30 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

115.- Zenbait galderaren erantzunak aztertuz, honako hau ikusi dut:

105.- Galdera bat egiteko aprobetxatuko dut: ulertzen dut EP307 ereduan, gordailuei buruzkoan, ez direla kontu korronteak kontsignatu behar eta horiek ez direla ezein zorro-eredutan jakinarazten (3 ereduak). Konfirma diezadakezu, mesedez? Eredu honi dagokionez, ... oharrak egiteko 13 eremu ditu! Ez da guztien berri ematen...

- Ordainsari eta eperik gabeko kontu korranteetan, hau da, ageriko gordailuetan mantendutako likidezia 3.7. ereduaren barne hartu behar da («Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 92/2007 Dekretuaren 11.3.l) artikuluko sozietateetako partaidetzak»). Kasu horietan, «0,00» epea sartu beharko da.

Ordainsaridun baina eperik gabeko zenbait kontu korrante ditugu. Zer irizpide ezarri behar dugu?

- Ordainsaridun eta eperik gabeko kontu korranteetan, hau da, ageriko gordailuetan mantendutako likidezia ere barne hartu behar da 3.7. ereduaren («Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 92/2007 Dekretuaren 11.3.l) artikuluko sozietateetako partaidetzak»). Horrelako kasuetan, «Tipo nominala» eremua bete beharko da, eta «Epea» eremuan «0,00» adierazi beharko da.

116.- Beste galdera bat.

Jaulkitzaileen eta jaulkitzaile taldeen fitxategiek nola funtzionatzen dute zehazki? Beharrezkoa al da zorro-eredu bat kargatzen den bakoitzean aurretiaz fitxategia kargatzea, ala hasierako karga egin daiteke zorro-eredu guztietarako, ondoren zorro-ereduak banan-banan kargatzeko? Programak balioztatu egingo du aurretiaz kargatuta dagoela, edo ondoren kargatu ahal da?

- Taldeen zein jaulkitzaileen XML fitxategian inbertsio-xede diren talde eta jaulkitzaile guztiak jaso behar dira, aktiboa edozein delarik ere. Hori dela eta, fitxategi horiek gainerako zorro-ereduei dagokien XML karga egin aurretik kargatu beharko dira.

117.- KONTRATU-ERREFERENTZIEI dagokienez, «Artxiboen kudeaketa» atalean markatu behar dira gure inbertsio-zorroan ditugun inbertsio-funtsen kudeatzaileei buruzko datuak?

- Ez. «Artxiboen Kudeaketa» atala bete beharko da Erakundeak aurreikuspen-planen ondarea gauzatu duten aktibo finantzarioen kudeaketarako kontratatu dituen erakundeetarako soilik.

EGUNERAKETA, 2011/10/03 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

118.- 309. ereduaren («3.1-3.8 PLANETAN SARTZEN EZ DIREN AURREIKUSPEN-PLANEI ATXIKIRIKO BESTELAKO AKTIBOAK») saldo zordunak eta hartzekodunak betetzean, ikusi dugu ez dagoela eremurik saldo horien egozpenaren %a adierazteko.

Saldo zordun eta hartzekodun nagusiak aldaketa-agenteen saldoei eta burtsari dagozkie, finantza-inbertsioen salerosketa eragiketen ondorioz egiteko dauden likidazioengatik; zeinak egun gutxian bukatuko baitira eta beste inbertsio baten parte izatera pasako baitira saldo zordunen kasuan, edo likidezia galduko dute saldo hartzekodunen kasuan. Hortaz, ulertzen dugu saldo horiek HM estaldurari egotzi behar zaizkiola.

- Finantza-inbertsioen salerosketa eragiketen ondorioz egiteko dauden likidazioen ondoriozko saldo zordunak eta hartzekodunak 3.7. Atalean sartu beharko dira («Gordailuak, Kredituak eta Akzioak...»), «Gordailuak» azpiatalean, zeinak kontu korranteen saldoak ere barne hartzen baititu, kontu korranteen aipatu saldoa saldo zordun edo hartzekodunekin egokituta. Horrelakoetan, egoera azaldu beharko da «Modalitatea» eremuko «Oharrak» gunean, 1. ereduaren «Oinarrizko datuak» atalean.

Gainerako saldo zordun eta hartzekodunak 3.9 «...planetan sartzen ez diren aurreikuspen-planetan atxikitako beste aktibo batzuk» atalean agertuko dira.

119.- RF inbertsio-fondoetan egindako inbertsioa 3.1 ERRENTA FINKOA ereduaren sartu behar da, eta RV Inbertsio-fondoetan egindakoa 3.2 ERRENTA ALDAKORRA ereduaren?

- Ez. Inbertsio horiek 3.6 «IKF eta arrisku-kapitala» atalean jaso beharko dira.

120.- Sartu beharreko datuen artean dago eskuratze-dataren eremua. Eraikinaren kasuan, hura baita BGAEaren egoitza, badago data hori; baina Higiezin, Ekipo Informatikoen, Instalazioen eta abarren balantze-saldoren kasuan, eskuratze-data multzo hori osatzen duen elementu bakoitzari dagokio. Zer jarri behar da?

▪ Etorkezinean aktibo jakin batzuk sartzeko aukera egon zein ez, Erakundearen inbertsio guztien aldean horiei dagozkien ezaugarri eta zenbatekoaren arabera multzokatuko dira, aplikazioak existitzen diren aktibo guztiei buruzko datuak sartzera behartzen duelarik.

121.- Zalantza sortu zaigu 1.3. ereduaren 1.3.4. eranskina betetzean (Datu orokorrak. - Gobernu Batzordea). XX erakundearen kasuan, gure enpresako sail juridikoak honako hau adierazi du:

1.3 erlaitzean Gobernu Batzordeko kide bakoitza ordezkatzeko duen bazkideen kolektiboa adierazi behar da (bazkide arruntak, bazkide babesleak edo bazkide sustatzaileak). Edonola ere, erakunde horien Estatutuaren aurreikusitako prozeduraren arabera, Gobernu Batzordeko kideak Batzar Nagusiak aukeratzen ditu zuzenean, Erakundearen barne hartutako ezein bazkideen kolektibo ordezkatu gabe (Batzarrean ez bezala).

Nahitaez bete behar denez, kasu honetan 1.3.4 eranskinean zer jarri behar dugun jakin nahi dugu.

▪ Batzar Nagusiko kide bakoitzari dagokion ordezkartza-talde bera.

122.- 1.3. ereduaren (Datu orokorrak - Gobernu Batzordea) adierazi didate XX BGAEan Idazkaria eta Idazkariordea Gobernu Batzordeko «ez-kide» direla, baina menu zabalgarrian ez dago kontzepturik zehaztasun hori emateko, hau da, kide ez diren idazkaria edo idazkariordea gehitzeko.

Horregatik, eredu honetan sartu behar ditut idazkaria eta idazkariordea? Zer kontzepturekin sartuko ditut?

▪ Ez. Gobernu Batzordeko kide ez diren idazkaria eta idazkariordea ez dira eredu honetan jaso behar.

Batzar Nagusiko kide ez diren idazkariaren eta idazkariordearen izenak «Modalitatea» eremuko «Oharra» gunean adierazi beharko dira, 1. ereduaren «Oinarrizko datuak» atalean.

123.- Beste galdera bat: Inkoherentzia bat topatu dugu XSD fitxategiaren eta eskuliburuaren artean, hain zuzen ere, deribatuen ereduaren (3.4); ElementuZenbatekoa etiketa (Eskuliburuaren 41. orrialdean horrela jasota dago) zenbateko gisa ageri da 43. orrialdean, eta XSD fitxategian ere zenbateko gisa. Inkoherentziarik dagoen kasuetan jakintzat jotzen dugu XSD fitxategiak duela lehentasuna. Zuzena da?

▪ Zuzena. Fitxategien diseinuaren 41. orrialdean «Zenbatekoa» jarri beharko luke, hori baita etiketa zuzena kasu guztietan, eta horrela programatuta dago orain.

Adierazitakoa gorabehera, inprimakian oker ageri da «Zenbateko estalia» eremua, zeina behin betiko bertsioan «Estaldura duen zenbatekoa» izendatuko baita.

124.- Beste galdera bat, honen berri emateko: Datari dagozkion eremuak «integer» erakoak dira; ezer jakinarazi beharrik ez badago, 0 adierazi behar da bertan edo data nulu bat, 01011900, adibidez? Eremu horiek balioztatu egingo dira?

▪ Beharrezkoa ez den eremu batean datarik adierazi nahi izan ezean, hutsik utzi beharko da (0 jartzeak akatsa ematen du, ez da data zuzena). Datarik jarriz gero, datak baliagarria izan behar du. Eremua Interger da, baina datak baliagarria izan behar du.

EGUNERAKETA, 2011/10/04 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

125.- 1. eredu (Gobernu Batzordea), jarraibideetan azalduta dago aplikazio baliagarrian presidente batek, idazkari batek eta idazkariorde, diruzain edo kide batek izan behar dutela alta egina.

5.3.2. Datuak eta balioztatzeak

Atal honetan beharrezkoak izango dira datu guztiak, uzte-data izan ezik. Presidente, presidenteorde, idazkari edo diruzain bat baino gehiago aktibo ez egotea balioztatuko da (alta egina dutela, baja eman gabe). Gutxienez idazkari batek, presidente batek eta kargu hauetako batek alta egina izatea balioztatuko da: presidenteordea, diruzaina edo kidea. Oharren eremua beharrezkoa izango da kualifikazio-eremuak «Ez dauka» balioa duen kasuetan.

Aurreko kontsulta batean adierazi zidaten, idazkaria eta idazkariordea Gobernu Batzordeko kide ez badira ez direla batzordeko kideen zerrendan agertu behar, baina oharren atalean zehaztu behar direla:

- Ez. Gobernu Batzordeko kide ez diren idazkaria eta idazkariordea ez dira eredu honetan jaso behar. Batzar Nagusiko kide ez diren idazkariaren eta idazkariordearen izenak «Modalitatea» eremuko «Oharra» gunean adierazi beharko dira, 1. ereduaren «Oinarriko datuak» atalean.

Gobernu Batzordeko kideen zerrendan idazkaria adierazten ez badut, aplikazioak ez du balioztatuko; zuzena litzateke idazkaria eta idazkariordea Gobernu Batzordeko kideen zerrendan adieraztea, nahiz eta kide izan ez, eta oharren eremuan Gobernu Batzordeko kide ez direla adieraztea? Edo, halakorik ezean, nola jokatu behar dut aplikazioak datuak baliozko ditzan?

- [Probaldian horrela jardun daiteke. Behin betiko bertsioan balioztatzea zuzendu egingo da.](#)

126.- Bazkide Sustatzaileen erlaitzean 1. eredu betetzen saiatzen naizenean, datuak sartzen ditut eta aldatu botoia sakatzen dut, baina mezu hau agertzen zait. «*Input string was not in a correct format*», eta ez du datuak gehitzen uzten. Proba egin dut bai planerako bai BGAErako, baita ESJN kode ezberdinak eta bazkideen izenak jarrita ere, baina beti agertzen da mezu bera:

(Embedded image moved to file: pic06091.jpg)

Badakizue zergatik gertatzen den hau?

- [Zerrenda hutsean, sakatu zerrendaren eskuinaldean ageri den karpeta ikonoan \(ikono horrek ezkutuan egon beharko luke, gure ingurunean ezkutatu dugu dagoeneko\) eta, ondoren, sakatu «Aldatu» botoia.](#)

[Bazkidea, izena eta ESJN eremuetako datuak bete behar dira, eta, ondoren, «Gorde» sakatu.](#)

127.- **Deribatuen ereduari** buruzko puntu bat argitzea nahiko genuke:

Balantzea eremuan adierazita dago balio negoziagarrietarako hauek direla baliokidetzak: 1 balioa = $A2/A1$, eta 2 balioa = $A3/A2$. A2 (negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak) kategoria bietan daudela kontuan hartuta, eta A2 kategoriako zorro batean dagoen deribatu bat topatuz gero... Noiz barne hartu behar da Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioak eremuan (A1), eta noiz Galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan balioztatutako bestelako aktiboak eremuan (A3)? Hau da, noiz jarri behar diot 1 balioa eta noiz 2 balioa?

- [Galderan adierazitako deribatuak aktibo finantzario zein -pasibo izan daitezke. Aktibo finantzarioak badira, A2ko Balantzean sailkatu behar dira \(negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak\) edo A3koan \(galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan balioztatutako bestelako aktiboak\). Finantza-pasiboak badira, P1eko Balantzean sailkatu behar dira \(negoziatzeko mantendutako finantza-pasiboak\) edo P2koan \(galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan balioztatutako bestelako pasiboak\). Behin betiko bertsioan, moldatu egingo da «Balantzea» eremuari dagokion menu zabalgarria:](#)

«Negoziagarrietarako»

1- A2/P1

2- A3/P2

3- A7/P4

«Ez negoziagarrietarako»

1- A3/P2

2- A7/P4

128.- 7. ereduan onuradun kopurua adierazi behar da. Heriotza kasuan izan ezik, ulertzen dugu onuraduna partaidea bera dela. Heriotza kasuan, gehienek «legezko onuradunak» izendatuta izaten dituzte. Kasu honetan nola zehaztuko dugu onuradun kopurua?

▪ Bazkide arrunten kausadunak dira onuradunak (bazkide aktiboak, pasiboak edo etete egoeran daudenak).

Beste kontu bat da prestazioa kobratzen ari diren bazkide pasiboek dagokiena.

129.- Inkoherentziak topatu ditugu 3.7. ereduaren, gordailuei buruzkoaren, XSD fitxategian; hain zuzen ere, lerro hauetan:

```
<xs:element name="TipoPais" type="xs:string"/>
```

```
<xs:element name="TipoPais2" type="xs:integer"/>
```

Ulertzen dugu datuak integer erakoa izan behar duela, "HerrialdeMota2" bezala. Konfirma diezagukezue, mesedez?

▪ Bi elementuak berdinak dira, baliadun zerrenda kodifikatuak dira.

1.- EEEko herrialdeak

2.- Beste batzuk

Biak dira Integer.

Erantsita doa XSD dokumentua zuzenduta, tasa bera izan dezaten.

EGUNERAKETA, 2011/10/10 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

130.- Telefonoz komentatu genuenez, XX BGAEan ez dago likidazio-baliorik. Kasu horretan, zer adierazi behar da 1.5 ereduan? Adeitasunez.

▪ Prestazio definituko sistemetan ez dago likidazio-baliorik, hortaz, eremu hau ez da bete behar.

131.- 3. ereduko TALDEAK arrakastaz kargatu ditugu, eta, gero, JAULKITZAILEEN karga egin da, hori ere arrakastaz.

Ondoren, konturatu gara TALDE gehiagori egin behar diegula alta, eta akatsa ematen digu.

Jaulkitzaileen baja egin behar dugu lehendabizi? Hala izanez gero, ez dago eremurik dagoeneko txanda berean sartuta dagoena ezabatzeko.

▪ Gaur egun, jaulkitzaileen kargak balioztatze-arazoak ematen ari dira. Ostegunean, hilak 13, eguneratu egingo da zuzenketa kontuan hartuta. Edonola ere, gaur egun aplikazioan ezin dira talde berriak bidali, baldin eta dagoeneko jaulkitzaileak kargatu badira, kargak ezabatu eta

txertatu egiten baitute; ondorioz, ezin dira jaulkitzaileak atxikita dituzten taldeak ezabatu. Hori dela eta, kontu handiz ibili behar da taldeei dagokien fitxategi bat kargatzeko orduan, behar bezala osatuta dagoela egiaztatuta.

Hala eta guztiz ere, aplikazioaren behin betiko bertsioan botoi berri bat txertatuko da, «Ezabatu gabe bidali», taldeen zein jaulkitzaileen kasuan elementu berriak gehitu ahal izan daitezen.

132.- Hauek dira aztertu nahiko nituzkeen galdera eta erantzuna:

30.- RF28 Kostu amortizatua? (Zer hartzen du barne?)

- «Mugaegunera arte mantendutako inbertsioak» zorroan sailkatuta dauden RF aktibo negoziagarri bakoitzarentzako posizioaren balio osoa».

Azaldu ahalko zeniguke zer den posizioaren balio osoa?

- Tituluaren kostu amortizatuko balioa da posizioaren balio osoa.

133.- Errenta finkoaren 3. eredia kargatzean, 2. eredian sartu dugun Hornidura matematikorik gabeko ekarpen definituko plan bati dagokion zorroa sartzen ari garenean, HMEstalEgozp. eremua bete behar da. 3. ereduko ADSoilik eremua B gisa markatu dugu. Baldintza horietan, nahitaezkoa al da HMEstalEgozp. eremua betetzea? Dokumentazioaren arabera, ulertzen dugu ez dela beharrezkoa, baina aplikazioak eskatu egiten du. Zero jar dezakegu balioztatze-fasea igarotzeko?

Eskerrik asko!

Adeitasunez,

- HMrik gabeko ED hutsa den plan bati buruzko kontsulta funtzionala da hau.

Erabiltzailearen eskuliburuaren eta fitxategien diseinuari buruzko dokumentuaren arabera, estalduraren egozpenari dagokion eremua beharrezkoa da kasu guztietan, Hornidura matematikorik gabeko karpenteren definituko planen kasuan izan ezik, baldin eta «EDSoilik» eremuaren balioa = B bada. Kasu hau ez dator bat jarraibide horiekin, hortaz, eremua nahitaez bete behar da.

Taulako testua: fitxategien diseinuari buruzko dokumentuaren «6.3.2 Eremuen formatua»

Datua: MultiERRENTAFINK. - ERRENTAFINK. - HM estalduraren egozpena - HMEstalEgozp.

Mota: Zenbakizkoa (5,2)

Balioztatzea: Zenbakizkoa (5,2)

Beharrezkoa?: HM duen ED planetarako izan ezik eta soilik baldin eta ED = B

Balioak: % balioa <=100,00

Bestalde, «HM estalduraren egozpena» eremuko balioek 0-100 tartean egon behar dute. Zero balioa ere jar daiteke (0).

EGUNERAKETA, 2011/10/11 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

134.- XML fitxategien dokumentua kargatzeari dagokionez, honako zalantza hau sortu zaigu.

Nahitaez sortu behar dira eredu guztietan etiketa guztiak, beharrezko eremuak izan zein ez?

- Bai, beharrezkoa da. XML dokumentuak ez ditu etiketa guztiak zehaztuta fitxategiaren diseinuan.

Bete behar ez diren eremuen kasuan, XML dokumentuan agertzen jarraitu behar dute etiketen, formatu honekin: (Adibidea:)

```
.....  
<Negozigarria>N</Negozigarria>  
<ISINKod>0</ISINKod>  
<ISINEzOhar>Oharrak</ISINEzOhar>  
<lzena> ISIN kod US0000000002 errenta finko ez negoziagarriaren kasuan</lzena>  
<HMEstalEgozp>0</HMEstalEgozp>  
<Jaulkitzailea>1</Jaulkitzailea>  
<NegoziazioMerk></NegoziazioMerk>  
.....  
<Oharrak></Oharrak>
```

eta ez dira dokumentuaren egitura orokorretik ezabatu behar.

135.- XML fitxategi bat kargatzean, akatsen *log*-ean honako hau agertzen zaigu:

Akatsa 1. <IKF> eremuari dagokion <AKMota> etiketan. AK mota beharrezkoa da.

Zalantza sortu zaigu eredu hau beharrezkoa ote den ala ez, baita IKF motari dagokionean ere.

BalioMota etiketaren zerrendan IKF edo AK artean aukeratu behar da.

Balioa IKF bat bada, ezin dugu AK eremua bete; eta alderantziz.

IKF eremua betetzeko beharrezkotasuna BalioMota eremuan 1=IKF katu denerako izan beharko litzateke, eta AK eremua betetzeko beharrezkotasuna 2=AK markatu denerako.

Esan nahi dugu ezin dela beharrezkoa izan bi eremuak betetzea.

Aktiboa bi eratakoa izan daiteke, IKF edo AK, eta BalioMota etiketan markatzen dira.

BalioMota IKF aukeratzen badugu, logikoa da IKFMota eremua beharrezkoa izatea eta ezarritako lau balioetako bat aukeratu behar izatea.

Puntu honetara iritsita, ezin da beharrezko gisa ezarri AKMota eremua, balioa **IKF** bat delako.

Gure aburuz, balioztatze-prozesuak honelakoa izan beharko luke: IKFMota eremua BEHARREZKOA BALDIN ETA BALIOMOTA = 1 (IKF) eta AKMota eremua BEHARREZKOA BALDIN ETA BALIOMOTA = 2 (AK).

▪ Aplikazioaren behin betiko bertsioan, 3. ereduko 3.6 IKF eta AK atala aldatuk egingo da honako eremu hauen analisia:

«IKF Mota» eremua beharrezkoa izango da, baldin eta «Balio mota» eremua = 1
«AK Mota» eremua beharrezkoa izango da, baldin eta «Balio mota» eremua = 2

136.- Hau da gure arazoa: ez daukagu XSD luzapena duten fitxategiak irekitzeko programarik. Zer programa behar da horretarako?

Hauxe da gure lan-ingurunea: Windows 7 32 bit + acrobat + office 2003.

Zure erantzunaren zain geratzen naiz, agur bat.

Eskerrik asko.

▪ XSD luzapena duten fitxategiak edozein testu-editorerekin zabal daitezke (windows-en notepad edo notepad++, adibidez: <http://notepad-plus-plus.org/download/v5.9.3.html>)

137.- Eredu honetan XML fitxategia kargatzen saiatzean, honako akats-mezu hauek agertu dira:

Akatsa 1. <IKF> eremuari dagokion <Oharrak2> etiketan. Oharren eremua beharrezkoa da herrialdearen eremua bete gabe dagoenean.

Akatsa 1. <IKF> eremuari dagokion <Oharrak3> etiketan. Oharren eremua beharrezkoa da herrialdearen eremua bete gabe dagoenean.

Jarraibideen arabera, baldin eta IKFMota = 3, EgoitzaHerrialdea eta BaimenGainbegiHerrialde eremuak soilik bete behar dira. Baldin eta IKFMota eremua 3 ez bada, ez da beharrezkoa eremu horiek betetzea; hortaz, ulertzen da oharrak ere ez direla bete behar.

Mesedez, puntu hau argitzea nahiko genuke.
Eskerrik asko.

- Zuzena. Hala da.

138.- Jaulkitzaileak atalean «Kreditu-kalifikaziorik gabe» aukera hautatuta, oharretan zerbait jartzeko eskatzen dizu. Zer jarri behar da?

▪ Kalifikatu gabeko jaulkitzaile batean edo, hala badagokio, kalifikazio ezezaguna duen jaulkitzaile batean inbertsioa zergatik egiten den azaldu behar da.

139.- Pentsatzen dut 3. ereduko atal guztietan «Kostua» datua balantzeetan islatuta dagoenari dagokiola.

▪ Ez. «Kostua» eremua eskuratze kostuari dagokio. Kontabilitateari dagokion balorazio aktibo bakoitzari dagokion sailkapen-multzoaren arabera izango da.

140.- Aurretik egin den galdera baten erantzunaren arabera, badirudi kontu korronteak 3.7 ereduan jakinarazi behar direla. Hala izanez gero, zer zenbateko jarri behar da «Merkatu-balioa» eremuan eta «Oharrak» atalean (beharrezkoak dira)? Eta, bestela, non jakinarazi behar da?

▪ «Merkatu-balioa» eremuari dagozkion ageriko gordailuen kasuan, EKDari dagokion datan duen zenbatekoa adierazi beharko da. «Oharrak» eremuan ageriko gordailua dela adierazi beharko da.

141.- Deribatuen atalak ISIN kodea eskatzen du. Zer jarri behar dugu ISIN kodea ezagutzen ez badugu edo halakorik ez badauka?

▪ Behin betiko bertsioan, merkatu antolatuetan negoziatutako deribatuak sartzeko, ISIN koderik ez dutenez ISIN kode faltsu bat erantsiko da ISIN kodeen taulan («ISIN koderik gabe»). ISIN kode horri dagokion «Izena» eremua «Izendatu» izango da. Izen hori Erakundeak sartu beharko du, deribatuaren izen erreala adierazita.

142.- Eredu estatistikoen aurkezpenari dagokionez, 7. ereduan zehazki, mobilizazioen atalean, adierazi behar al dira zenbakiz BGAE beraren aurreikuspen-planen arteko intsuldaketak? Bestela esanda, adierazi behar al dira barne-intsuldaketak?

Eskerrik asko alde z aurretik.

▪ Ez. Ez dira horiek jaso behar. Mobilizazioak (BGAEen arteko eskubide ekonomiko mugimenduak) eta erreskateak soilik barne hartu behar dira. (Ikusi joan den 09/15ean posta elektronikoko bidez bidalitako Erabiltzailearen Eskuliburua).

143.- Tipo nominala jakinarazteko daturik ez badago edo zero bada, zer jarri behar da Oharrak4 eremuan?

Bestalde, zer uste dute jarriko dugula Oharrak5 eremuan?

▪ «Tipo nominala» eremuari dagokion «Oharrak» eremuan azaldu behar da zergatik ez den tipo nominala ezagutzen edo zergatik den zero.

Merkatuko balorazioari dagokion «Oharrak» eremuan azaldu behar da zer metodo erabili den gordailuaren balorazioa egiteko.

Talde eta jaulkitzaileei dagozkien fitxategiei buruz: (144;145; eta 146)

144.- Taldeen eta jaulkitzaileen fitxategi bat kargatu behar da inportatu nahi den BGAE bakoitzarentzat, edo, ostera, fitxategi bakar batean karga daiteke behin, hainbat BGAE dituzten kudeatzaileen kasuan ere?

- BGAE bakoitzeko bat.

145.- Lehenengo galderaren erantzuna hainbat karga egin behar direla bada: Demagun Espainiako Estatuak dela 1. jaulkitzailea eta 1. taldea. Jakin nahiko genuke BGAE bakoitzerako errespetatu behar den kodifikazio hori edo BGAE bakoitzaren kodifikazioa ezberdina izan daitekeen. Adibidez, BGAE(1) baten kasuan baldin eta Espainiako Estatuak 1. taldea eta 1. jaulkitzailea bada; BGAE (2) baten kasuan Espainiako Estatuak izan behar du 1. taldea eta 1. jaulkitzailea?

- Ezberdina izan daiteke.

146.- Gainera, jakin nahiko genuke gerora kargatzen den eredu bakoitzean errespetatu behar ote den BGAE bakoitzaren kodifikazioa, edo ezberdina izan daitekeen karga-aldi bakoitzean. Hau da, 2010eko kargan Espainiako Estatuak 1. taldea eta 1. jaulkitzailea bada, 2011ko kargan Espainiako Estatuak izan behar du 1. taldea eta 1. jaulkitzailea?

- Oro har, taldeei eustea komeni izaten da. Aplikazioak aukera ematen du taldeak aldatzeko, horien barnean moldaketak gerta daitezke eta.

EGUNERAKETA, 2011/10/14 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

147.- Azken kontsulta-dokumentuan zalantza bat sortu zaigu jarraian adierazita dauden galderaren eta erantzunaren inguruan:

141.- Deribatuen atalak ISIN kodea eskatzen du. Zer jarri behar dugu ISIN kodea ezagutzen ez badugu edo halakorik ez badauka?

- Behin betiko bertsioan, merkatu antolatuetan negoziatutako deribatuak sartzeko, ISIN koderik ez dutenentzako ISIN kode faltsu bat erantsiko da ISIN kodeen taulan («ISIN koderik gabe»). ISIN kode horri dagokion «Izena» eremua «Izendatu» izango da. Izen hori Erakundeak sartu beharko du, deribatuaren izen erreala adierazita.

ISIN koderik ez dugun merkatu negoziatuetako deribatuen kasuan, «ISIN koderik gabe» testua sartu behar dugu eremu horretan?

Zalantza honako hau da: 15 posizio ditu eta eremu honen maximoa alfanumeriko gisa definituta dago (12).

- ISIN faltsuaren izen zehatzak 10 posizio izango ditu eta «ISINKODEEZ» izango da.
- Bestalde, «Izena» eremuari dagokionez, datuak eskuz sartzan direnean soilik erabili beharreko prozedura azalduta dago 141. galderaren erantzunean.
Datuen karga masiboa hautatuz gero, XML fitxategian, deribatuaren egiazko izenaz bete beharko da eremu hau, «Izena» eremuan inolako aldaketarik egin behar izan gabe (aurreko kasuan ez bezala).

EGUNERAKETA, 2011/10/27 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

148.- BGAEen Kontabilitate Plan Orokorrean zera adierazita dago: 5.8. Araua (<http://www.epsv.org/legislacion/anexoresoplafi211209.pdf> webgunean dagoen pdf fitxategiaren 96. orrialdea)

[...] *Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak izango dira honako hauek: enpresako kutxan dagoen dirua, ageriko banku-gordailuak eta eskudiru bihur daitezkeen aktibo finantzarioak, **baldin eta eskuratu zirenean epemuga hiru hilabetetik gorakoa ez bazuten**, balio-aldaketak izateko arrisku handirik ez badute eta enpresako diruzaintzaren kudeaketa-politika arruntaren parte badira. [...]*

Hori dela eta, ez dakigu zer egin behar den hiru hilabetetik beherako epemuga duten *repo*-ekin eta aktibo finantzarioekin. Izan ere, 39. eta 40. galderetan orokorrean adierazita zegoen *repo*-ak errenta finkoko ereduak jaso behar direla; baina uste dugu partida horien balantzean A-1 eremuan adierazi behar direla (Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak), eta ez dugu ikusten eredu horretan (RF) A1 balantzearen gakorik agertzen denik, ez negoziagarrietarako ez ez negoziagarrietarako. Argituko zenigukete, mesedez, nola jaso behar diren eskuratze unean epemuga hiru hilabetetik beherakoa zuten mota horretako aktiboak, *repo*-ak eta errenta finkoa? Izan ere, fitxategien definizioari dagokion dokumentuaren Balantze gakoan eskaintzen diren aukeretatik edozein hautatzen badugu, ez litzateke bat etorriko egun barne hartzen duen Balantzearen Aktiboa ereduarekin (A1 atala).

▪ 2010/12/31n itxitako kontabilitatean hiru hilabetetik beherako epemuga duten *repo*-ak eta aktibo finantzarioak likidezia gisa zenbatu ditu zure erakundeak, 2. ereduko balantzearen A1 epigrafean. Hortaz, epigrafe horretan barne hartu beharko dira berriro.

Hala eta guztiz ere, 3. ereduaren 3.1 Errenta Finkoa atalean, jaso egin beharko dira aipatu aktiboak, dagokien merkatu balioa adierazita, eta «Balantzea» eremuan dagokien aukera hautatuta. 1. ereduaren «Modalitatea» eremuari dagokion oharretan adierazi behar da hori, baita epigrafe bietan erregistratutako aktiboen balorazioan izan litekeen ezberdintasun ere.

149.- Periodifikatze-interesak:

Egin diren galderei emandako erantzunaren arabera, interesen periodifikatzea errenta finkoko aktiboen balioan sartu behar da, neurri bera aplikatuko litzateke gordailuen eta k/k-en kasuan?

• Kontu korronteei dagokienez, ikusi 140. galderaren erantzuna kontsulten dokumentuan.

Gordailuei dagokienez, ikusi 55. galderaren erantzuna kontsulten dokumentuan.

Ulertzen dut, orduan, periodifikatzeari dagokion zenbatekoa, balantzearen A13 atalean jasota dagoena, ez dela «Beste aktibo batzuk» eremuan jaso behar.

• Bai, zuzena da.

Oro har, Erakundeek egiten dituzten inbertsioek, 3. ereduko atal ezberdinetako «Balantzea» eremuei dagozkien aukeren artean hautatutako epigrafearekin bat ez datozen balantzearen epigrafeetan sailkatuta daudenean, zenbateko osoa zein partziala dela, 2. ereduko balantzean sailkatuta jarraitu beharko dute, 2010/12/31n kontabilitatea itxita dagoelako. 2. ereduaren eta 3. ereduaren arteko sailkapen ezberdintasuna, baita zenbatekoetan izan litekeen ezberdintasuna ere, 1. ereduko «Modalitatea» atalari dagokion «Oharra» eremuan adierazi beharko dira.

150.- Fidantza eratuak

Gerokoen merkatuan jarduteko eraturako fidantzak zer ataletan jaso behar dira?

• Gerokoen merkatuan jarduteko eraturako fidantzak 3. ereduaren 3.7 atalean jaso behar dira, («Gordailuak, Kredituak eta Akzioak...»), 1. epigrafean.

151.- Beste hartzekodun batzuk.

Beste hartzekodun batzuei (erakunde gordailuzaina, kudeatzailea, etab.) dagozkien zorren zenbateko batzuk pasiboaren parte dira eta planen posizio kontuetan eragina izango duten gastuak izango dira. Zenbateko horiek nonbait jaso behar ditugu 3. erudian edo, pasiboa izaki, ez da egokia? Administrazio publikoekiko zorren zenbateko bat ere badugu atal berean. Zalantza sortu zait, kontzeptuak «Beste zordun batzuk» atalean sartzen baditugu simetria arazoa sortzen delako.

- Gizarte-aurreikuspeneko erakundeetan ez dago posizioen konturik. Gordailuzainarekin eta kudeaketaz arduratzen den erakundearekin sortutako saldo hartzekodunek inoiz ez dute aurreikuspen-planetan eraginik izango; hortaz, ez dira 3. eruduaren ezein ataletan barne hartu behar.

Ekarpen definituko sistemaren aurreikuspen-planetan, bazkideen eskubide ekonomikoak zehazteko egoz daitezkeen administrazio-gastuak (zuzenak zein zeharkakoak) zehazteko, aurreikuspen-plan bakoitzari eta planari atxikitako ondareari dagozkion erregelamenduetan administrazio-gastu kontzeptu gisa zehaztutako portzentajea baliatuko da, portzentaje hori ezein kontzeptu gehigarrik gainditu ezin izango duelarik. Zentzu horretan, BGAEek inbertsio kolektiboko instituzioetan inbertitzen dutenean, kudeatzaile, gordailuzain edo instituzio ezberdinek jaso behar dituzten metatutako komisioak (zeharkako gastuak) batera tratatzen dira, eta ezin izango diote bazkideari gastu gehigarrikeri eragin. Hortaz, atzera egin behar da bazkideen eskubide ekonomikoak zehazteko. Hori dela eta, plan bakoitzari egoz dakizkiokeen administrazio-gastuak erregelamenduan ezarritako berberak dira, portzentaje terminoetan. Gastu horiek minoratu egiten dute aurreikuspen-plan bakoitzari atxikitako ondarea eta, ondorioz, murriztu egingo lukete BGAEak gastu gisa egin behar duen hornidura.

Administrazio publikoekiko saldoak 3.8 «Aurreikuspen-planeri atxikitako beste aktiboak («92/07 Dekretuaren 11.3.7 artikulua)» atalean barne hartu behar dira.

152.- Kasu batean ikusi dugu epemugarako zorro batean eperako gordailu bat (hiru hilabetetik gorakoa) dagoela, eta eredu horretan ez dago balantzearen A6 gakoa. Esango diguzu, mesedez, nola jardun behar dugun horrelako egoeretan?

- Gordailuak inoiz ezin dira epemugarako inbertsio-zorro gisa sailkatu. Kategoria horretan jaso daitezke soilik ELGA eremuan erregulatutako merkatuetan negoziatu diren errenta finkoko balioak eta eskubideak.

Edonola ere, 2010/12/31n itxitako kontabilitatean galderan adierazitako gordailua epemugarako errenta finko gisa (A6) zenbatu duenez zure Erakundeak 2. erudian, «Balantzea» atalean ere epigrafe horretan jaso beharko dira.

Hala eta guztiz ere, 3. eruduaren 3.7 «Gordailuak, Kredituak...» atalean, jaso egin beharko dira aipatu aktiboak, dagokien merkatu balioa adierazita, eta «Balantzea» eremuan dagokien aukera hautatuta. 1. eruduaren «Modalitatea» eremuari dagokion oharretan adierazi behar da hori, baita epigrafe bietan erregistratutako aktiboen balorazioan izan litekeen ezberdintasun ere.

153.- Egun on. 7.1 erudian, «BAZKIDE SUSTATZAILE/BABESLEAREN EKARPENAK» atalean, zer motatako ekarpenak sartu behar dira ezohiko ekarpenetan (defizita)?

- Bazkide sustatzaileak edo bazkide babesleak egindako edozein ekarpen ez-erregular, baita berrorekatze planetan aurretik dauden defiziten estalduratik eratorritakoak ere.

Plana ekarpen definitukoa bada, bazkide sustatzaile/babeslearen ezohiko ekarpenak (esaterako, etekinek eragindakoak) jaso behar dira? Ala ekarpen arrunten atalean jaso beharko liriateke horiek?

- Bai, ezohiko ekarpenak.

Plana prestazio definitukoa bada, jaso behar dira azterketa aktuariaren balio aldaketen ondorioz egotz ezin daitezkeen ekarpenak?

- BAI.

EGUNERAKETA, 2011/11/08 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

154.- Konfirmatzearen, 1. ereduaren barruan («Aurreikuspen-plana») hasierako likidazio-balioa elikatu behar da plan bakoitzean. Zein da hasierako likidazio-balio hori? Izan ere, horietako zein elikatzen den, ezberdina izango da hasieratiko etekina edo ariketaren etekina:

Planaren hasierako likidazio-balioa (izan zuen lehena)
Ariketa hasierako likidazio-balioa (2009ko itxiera)

Gure aldetik, ariketa hasierako likidazio-balioari dagokiona elikatzen ari gara (2009koaren ixte unekoa), horrela 2010eko etekina eskuratu ahal izateko.

- Hala da. «Hasierako likidazio-balioa» eremua ekitaldiaren hasierari dagokio, eskatutako informazioari dagokion horri.

155.- Fitxategiei buruz:

1. Akats bat dago 7.1 ereduaren XSD fitxategiaren kasuan; jasota dagoen egitura ez da fitxategian jasota dagoena. XSD eguneratua beharko genuke.
2. Data nuluak fitxategian nola jakinarazi argitzea beharko genuke; izan ere, «integer» gisa adierazita daudenez, 0 onartu beharko lukete.
3. Bi dezimaldun zenbakizko balioak fitxategian nola jakinarazi argitzea beharko genuke; izan ere, «zenbakizkoa» gisa adierazita daudenez, 0,00 onartu beharko lukete.

- Zerbitzu informatikoak emandako erantzuna dago jarraian:

Arratsalde on.

Honako hau kontuan hartuta:

- XSD fitxategietan «integer» eta «dezimala» motako eremuak daude, zeinak nuluak izan baitaitezke zuzenak diren fitxategietan.
- Mota horretako datuek beteta egon behar dute XSD fitxategiei dagokien XMLa zuzen balioztatu dadin.
- Fitxategiak prozesatzeko ezinbestekoa da etiketa guztiak betetzea, hortaz, ezin da bat bera ere bidali gabe utzi.

Mota guztiak aldatzea erabaki dugu, guztiak *string* erakoak izateko eta, horrela, XSD fitxategiei dagokienez balioztatuko diren balio nuluak jarri ahal izateko. Adierazitako balioa zuzena ez bada (adibidez, data okerra bada, zenbatekoa zenbakizkoa ez bada, ...), aplikazioak adieraziko du, karga egiten denean, akatsa *log*-aren fitxategian.

Aurretik adierazitakoaren arabera moldatutako XSDak bidaltzen dizkizuegu erantsita, baita 7.1 ereduko XSD zuzenduaren egitura betez (Biharko-ren mezuaren arabera).

156.- Dokumentu honetako 51. galderari dagokionez, eman den erantzuna aldatu egin behar da. Hau da egokia:

- Estatistika-kontabilitate informazioa betetzen den uneko posizioaren zenbatekoa jaso behar da.

157.- XX erakundearen plan guztietan, errenta itxuran berraseguraturako prestazioak dauzkagu; hortaz, 1. ereduko planaren definizioan, errenta aktuarioetan ED hornidura matematikoak dituela adierazi dut.

Hornidura matematikoak dituela jakinaraztean, 0 ereduan agertzen da aktuarioak ere sinatu behar duela deklarazioen orria.

Aseguru-etxekoa da horniduren kalkulua egiten duen aktuarioa, ez BGAEkoa. Erakundearekin zerikusirik ez duen batek sinatu behar al du deklarazioaren orria? Gure kasuan, aktuarioa XXkoa da, berraseguru-kontratua horrela egin delako. Baina, berraseguru-kontratua, adibidez, YYrekin egin izan balitz? Aktuarioari eskatu beharko nioke deklarazioaren orria sinatzera etortzeko? Edo erakundearen txartelak bidali beharko nizkioke aplikazioan sartu eta sinatu ahal izateko? Gainera, XX erakundeko aktuarioak ez du lizenziatuta. Ezinbesteko baldintza bada, ez dut uste EKD bidali behar den datarako txartela egina izango duenik.

- Hornidura matematikoak dauden kasuetan, ezinbesteko baldintza da erakundearen txosten aktuariala sinatu duen aktuarioak 0. eredua sinatzea. Sinatzea Erabiltzearen Eskuliburuaren 1 puntuan adierazi legez egin behar da, ONA, IZENPE txartelei edota NAN elektronikoki dagozkion ziurtagiri digital pertsonalen bitartez. Sinadura sartu ahal izateko, edozein ekipotatik sar daiteke aplikazioan.

158.- 0. ereduan («EKD deklarazio orria») ageri den koadroan aktuarioari buruzko datuak jaso behar dira. Argi geratu zaigu zenbakia atalean jaso behar dela BGAEan nahasita dagoen aktuarioaren elkargokide zenbakia. Edonola ere, telefonoz adierazi digute txartel bat behar dugula informazio hori bidaltzeko.

Mesedez, argitu nahi dugu hori ezinbesteko baldintza den eta, hala izanez gero, XXXek txartela nola eskuratu dezakeen azaltzeko eskatu nahi dizuegu.

- Bai. Hornidura matematikoak dauden kasuetan, ezinbesteko baldintza da aktuarioak 0. eredua sinatzea. Sinatzea Erabiltzearen Eskuliburuaren 1 puntuan adierazi legez egin behar da, ONA, IZENPE txartelei edota NAN elektronikoki dagozkion ziurtagiri digital pertsonalen bitartez.

159.- Estatistika-kontabilitate dokumentazioaren izapidetze telematikorako aplikazioari dagokionez, honako arazo hau sortu zaigu:

1. ereduan «Gobernu Batzordea» atalari dagozkion datuak gordetzean, programak balioztatu egiten du alta egina dutela, gutxienez, presidente batek eta honako kargu hauetako bik: presidenteordea, diruzaina edo kidea. Arazoa da gure erakundearen Gobernu Batzordea honako hauek osatzen dutela: presidente 1, idazkari 1 eta 4 kide. Orduan, presidentear gain sartu behar diren beste bi karguetako bakarria daukagu.

- Laster zuzenduko da gorabehera hori, eta aplikazioak dagozkion balioztatzeak egingo ditu.

EGUNERAKETA, 2011/11/09 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

160.- 7.2. puntuan 7. eredua betetzean, zalantza bat sortu zaigu. Zeri esaten diozue «Erreskate»? Erreskate osoei edo planaren ondarearen zati bat kapital gisa hartzen duenari?

Eta 7. ereduaren 7.3. puntuan (errenta kopurua), errenta modura kobratzen duenari 14 ordainketa abonatzen dizkiogu, baina prestazio mota bakarrean; baina batzuek kontzeptu biri dagozkion errentak jasotzen dituzte (erretiroa eta ezintasuna). Errenta kopurua adierazteko, zer hartu behar dugu kontuan: hartzaileen kopurua ala gertaera?

- Bazkide baten aldeko funtsetako mugimendu guztiak, baldin eta prestazioen ordainketaren, eskubide ekonomikoak beste BGAE batera mobilizatzearen edo eskubide ekonomikoak BGAE bereko planen artean intsuldatzearen ondorio ez badira.

Erreskateak osoak edo partzialak izan daitezke.

7. ereduaren 7.3. atalean («Aurreikuspen-planek estalduran ez dituzten prestazioak» - «Bestelako prestazioak») ez dago errenta kopurua adierazteko eremurik. Mota bakoitzeko prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua adierazi behar da, sexuaren arabera eta berau kobratzeko moduaren arabera.

161.- **1. ereduan «Gobernu Batzordea»** atala betetzen ari gara, eta arazo hau daukagu:

Sartzen ari garen BGAEaren gobernu batzordean ez da baldintza hau betetzen:

Gobernu batzordean presidentea eta kideak daude, baina ez dugu ez diruzainik, ez presidenteorderik; hala ere, Gobernu Batzordean badago idazkari eta idazkariorde bana. Hauek dira gure galderak:

- 1.- Ereduek onartu egingo du egoera hau, aurretik adierazi dugun baldintza bete ez arren (gorriz)?
- 2.- Gobernu Batzordeko kide ez diren idazkari eta idazkariordeak nola sartu behar ditugu eredia behar bezala balioztatzeko?

- Ez. Laster zuzenduko da gorabehera hori, eta aplikazioak dagozkion balioztatzeak egingo ditu.

Aplikazioan dagoeneko jasota dago gobernu batzordeko kide ez den idazkaria adierazteko aukera. «Idazkariaren oharrak» eremuan, kide ez den idazkariari dagozkion oharrak jasotzeaz gain, jaso daiteke, baita, kide ez den idazkariorde bat ere badagoela.

EGUNERAKETA, 2011/11/14 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

162.- Telefonoz komentatu dugunaren arabera, XXX erakundeak kudeatutako BGAEen kasuan (horien berri ematen ari gara EKD 2010 aplikazioa), ikusi dugu Gobernu Batzordeko kide ez den idazkari bat dutela eta, kasu horretan, kargu gorrek ez duela ordezkariarik 1.3.4 eranskinean jasotako ezein kolektibotan (Bazkide arruntak, Bazkide Sustatzaileak, Bazkide babesleak). Hortaz, ulertzen dugu eremu bat faltako litzatekeela menu zabalgarrian, adierazteko kargu honek ez duela inolako ordezkariarik.

Oh.: Behin-behinean, «Bazkide arruntak» eremuan adierazi dugu, hori baita modu lehenetsian agertzen den aukera. Dagozkion aldaketak egiteko aukeraren zain geratzen gara.

- Laster zuzenduko da gorabehera hori, eta menu zabalgarrian jasoko da «Ez du ordezkariarik» aukera ordezkariari dagokion eremuan.

163.- Beste zalantza bat dugu: sinadura elektronikoa izan daiteke aktuarioaren zerbitzuak jasotzen dituen enpresaren (hori posible bada), ala aktuarioaren pertsonala izan behar du?

- Aktuarioarena izan behar du.

Argituko zenigukete XXX-ek, pertsona juridiko gisa, txartelik izan dezakeen?

- Ez. Txartelak aktuarioarena izan behar du, pertsonala.

164.- 3. ereduari dagokionez, dagoeneko bete dugu BGAEak zer eremutan dituen aktiboak:

JAULKITZAILEAK ETA TALDEAK
ERRENTA FINKOA
ERRENTA ALDAKORRA
DERIBATUAK
IKF ETA AK

GORDAILUAK

Gainerako atalak ez ditugu bete behar, ez daukagulako horietan jaso beharreko aktiborik.

Arazoa da laburpen pantailan bete gabe dagoela jartzen duela etengabe, eta horrela ezin dugu sinatze-prozesuarekin aurrera egin.

Eskertuko genizueke zer egin behar dugun azalduko bazenigute.
Eskerrik asko, eta agur bero bat.

- Zerbitzu informatikoak emandako erantzuna dago jarraian:

3. ereduaren balio aldaketari dagokionez, honako hau konfirmatu nahi dizut: datuak XML bidez kargatzen badira eta 3.1-3.11 erlaitzetan ezer grabatzen ez bada, ez da «Balioztatzeko zain» egoerara pasako. Datu guztiak XML bidez kargatzen dituzten BGAEak erlaitz batean sartu beharko dira, lerro bat aukeratu beharko da, eta «Aldatu» eta «Gorde» sakatu. Horrek ez ditu sartutako datuak aldatuko, baina ereduaren egoera aldatzea eragiten du.

EGUNERAKETA, 2011/11/17 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

165.- Funts kotizatuak edo ETFak funts gisa sailkatu behar dira (eta, ondorioz, 3.6 IKF eta AK atalean jaso) ala Errenta aldakor gisa (eta, ondorioz, 3.2 atalean jaso)? Argi dugu IKFak direla, baina zalantza bat dugu. Horietako bat aplikazioan bilatuta, «**ACCS**. XXX» deskribapena agertzen da (akzioak, alegia), eta ETF ez diren beste funts batzuetan ez da horrelakorik agertzen.

- ETF funtsak Inbertsio Kolektiboko Institutio gisa sailkatuta daude, eta, ondorioz, 3. ereduko 3.6 IKF eta Arrisku-kapitala atalean jaso behar dira.

166.- Egun on. Zera konfirmatu nahi dugu: laneko planetarako beharrezkoa bada **bazkide babesle guztien** izenak eta ESJNak adieraztea, hau da, langileen kontura planean ekarpena egin duten enpresa guztienak.

Ondo izan.

- Bai. Laneko planetarako beharrezkoa da **bazkide babesle guztien** izenak eta ESJNak adieraztea, hau da, langileen kontura planean ekarpena egin duten enpresa guztienak.

167.- 3.7 Gordailuak, Kredituak eta Akzioak, eta 11.3.I) artikuluko sozietateetako partaidetzak atalean, eperako gordailuen kasuan, zeri dagokio «Epea (hilabeteak)» eremua? Gordailua eratu zen unean kontratatu zen epeari, ala gainerako epeari, hau da, estatistika-kontabilitate informazioari dagokion dataren eta gordailuaren epemugaren arteko hilabete kopuruari?

Ondo izan.

- «Epea (hilabeteak)» eremuan adierazi behar da zer epetara kontratatu zen gordailua hura sortu zenean.

EGUNERAKETA, 2012/03/05 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

168.- Kaixo. Bidali behar den estatistika-kontabilitate informazio honi dagokionez, honako galdera hau sortu zaigu:

Talde eta jaulkitzaileen karga berrirako, mantendu behar al ditugu 2010eko estatistika-kontabilitate informazioarekin bidalitako kodeak ala egin dezakegu beste kodifikazio bat?
Agur bat,

- Talde eta jaulkitzaileen karga berria egiteko, mantendu egin behar dituzue EKD 2010erako alta egina duten taldeen eta jaulkitzaileen kodeak, eta, behar izanez gero, talde zein jaulkitzaileen artean gertatu diren altak eta bajak bideratu behar dira.

EGUNERAKETA, 2012/05/04 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

169.- Arratsalde on.

Erakundeetara bidali den kontsulta-dokumentu eguneratuari dagokionez, zalantza bat sortu zait talde eta jaulkitzaileen kodifikazioari dagokionez. EKD 2010eko 5. galderaren arabera, era korrelatiboan egin genien alta talde eta jaulkitzaileei, lehen kodeari 1 zenbakia ezarrita. 168. galderan, ordea, adierazita dago mantendu egingo direla 2010eko EKDan alta egina zuten talde eta jaulkitzaileen kodeak, eta beharrezkoak diren altak eta bajak bideratuko direla.

2010eko DECean, adibidez, 10 jaulkitzaile bagenituen 1etik 10era bitartean zenbakituta, eta 2011ko DECean 8 soilik baditugu (1 eta 6 kodeak dituzten jaulkitzaileak desagertu egin dira), 2010eko DECean sortutako kodeei eutsiz gero, ez dira era korrelatiboan zenbakituta egongo (1etik hasita). Nola jardun beharko genuke horrelako egoera batean?

- Alta egina duten jaulkitzaileak mantendu egin behar dira; hau da, ez zaie bajarik egin behar, Erakundeak haietan inbertitzeari uzten badio ere. Baina, salbuespen-egoeraren batek eraginda, erakundeak baja egin beharko balio jaulkitzailearen bati, kode horiek mantendu egingo dira zegokien taldearen barruan, eta baja egina duten jaulkitzaileentzako erreserbatuko dira, baldin eta gerora alta egin behar bazaie ere.

Beste galdera bat: Fitxategien diseinuan aldaketaren bat egon denez, helaraziko al zaizkie erakundeek xsd fitxategi berriak, horiek balioztatzeko?

- XML fitxategietan egindako aldaketek ez diote diseinuari eragiten, beraz, XSD fitxategietan ez da inolako aldaketarik izan.

Agur bat,

EGUNERAKETA, 2012/06/27 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

170.- Egun on.

XML fitxategien eskuliburuan, ez da 3.7 ereduko Gordailuen minusbalioa eremu berria agertzen. Adieraziko diguzue, mesedez, zein izango den eremu horri dagokion etiketaren izena XML fitxategietan jasotzeko?

Eskerrik asko

- 3. ereduko 3.7 «Gordailuak, kredituak eta akzioak, eta 2007/92 Dekretuaren 11.3.) artikuluko sozietateetako partaidetzak» atalari dagokion XML fitxategian ez da «Gordailuen minusbalioa» eremuaren etiketarik egon behar. Eremu berri hori eremu kalkulatu da.

171.- Egun on.

XML 250612 fitxategien dokumentuan islatutako aldaketen arabera, 3.7 ereduaren kasuan **eremu berri bat** gehitu da, «Gordailuaren nominala» izenekoa.

Eredu berari dagokion beste dokumentuan, Erabiltzailearen Eskuliburuan, adierazita dago **bi eremu berri** gehitu direla: Gordailuaren nominala bera eta beste bat, **Gordailuen minusbalioa**. Hainbat galdera sortu zaizkigu:

Zer nominal jakinarazi behar da ageriko gordailuen kasuan (kontu korranteetako saldoak)?

- «Gordailuaren nominala» eremuari dagozkion ageriko gordailuen kasuan, EKDari dagokion datan zer saldo duen adierazi beharko da.

Gordailuen minusbalioa eremua:
Jakinarazi behar da, ala ez?

- Ez. Ikusi 170. galderaren erantzuna.

Erantzuna baiezkoa bada:
Zein da XML fitxategirako etiketaren izena?
Beti jakinarazi behar da instrumentu mota 1 dela, nahiz eta minusbaliorik egon ez?
Jakinarazi beharreko balioa honako hau al da: merkatuaren balorazioan esleitutako zenbatekoa ken gordailuaren nominalan esleitutako zenbatekoa?

172.- Eredua honi buruzko beste zalantza bat:

Instrumentu mota berri bat gehitu da balioen zerrendan: 8- Pentsio planetako finantza-inbertsioen salerosketa-eragiketen ondorioz egin gabe dauden likidazioen saldo zordun eta hartzekodunak. Estali gabe dagoen saldoa:
Zeinu positiboa adierazi behar da salmentetan eta negatiboa erosketetan?

- Bai.

Ondorioz, 8. aukera gehituta: Aurreikuspen-planetako finantza-inbertsioen salerosketa-eragiketen ondorioz egin gabe dauden likidazioen saldo zordun eta hartzekodunak, baliorik gabe geratuko da dokumentu honen 118. galderaren erantzunean adierazitakoa, jarraian transkribatua dagoena: «*“Finantza-inbertsioen salerosketa eragiketen ondorioz egiteko dauden likidazioen ondoriozko saldo zordunak eta hartzekodunak” 3.7. atalean sartu beharko dira (“Gordailuak, Kredituak eta Akzioak...”)*, *“Gordailuak” azpiatalean, zeinak kontu korronteko saldoak ere barne hartzen baititu, kontu korronteko aipatu saldoa saldo zordun edo hartzekodunekin egokituta. Horrelakoetan, egoera azaldu beharko da “Modalitatea” eremuko “Oharrak” gunean, 1. ereduaren “Oinarrizko datuak” atalean.*».

Zer eremutan adierazi behar da saldo hori?

- «Merkatuaren balorazioa» eremuan.

Ondo izan.

EGUNERAKETA, 2012/06/29 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

173.- Erabiltzearen Eskuliburuari eta XML fitxategiei buruz bidalitako informazioari dagokionez, bertan jasotako edukia pasa diet gure informatikariei, eta, aztertutakoan, honako galdera hau planteatu digute:
Ondo izan.

Arratsalde on.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertzen aritu gara, eta galdera bat dugu.
Erantsita dagoen Erabiltzailearen Eskuliburuaren 63. orrialdean, Gordailuen fitxategiari erantsi beharreko eremu berriak agertzen dira: Gordailuaren nominala eta Gordailuaren minusbalioa. Edonola ere, «Fitxategien definizioa» dokumentuaren 57. Orrialdean, etiketa bakarra gehitu da, Gordailuaren nominalari dagokion fitxategiarena.
Hori dela eta, zalantza bat sortu zaigu: nola bidali behar da Gordailuaren minusbalioari dagokion datua, bidali behar baldin bada? Egin dezakezue kontsulta hau, zalantzak argitzeko?

- Ikusi 170. galderaren erantzuna.

174.- Arratsalde on.

Bidalitako dokumentu berriei dagokienez (CML fitxategiak eta Erabiltzailearen Eskuliburua), hainbat zalantza sortu zaizkit:

1.- XXX da erakundea, ekarpen definituko bi plan ditu, hornidura matematikorik gabeak.

XML fitxategiak dokumentuaren 11. orrialdean, erreferentzia egiten zaio HM estalduraren egozpena % eta ED soilik eremuen balioztatzei; adierazita dago ED hutsekoa den plan batean ED soilik eremua hutsik egon beharko litzatekeela eta HM estalduraren egozpenak % eremua 0 izan beharko litzatekeela.

Baina eredu jakin bateko fitxategien definizioa jota (errenta finkoari dagokionera, adibidez), ED soilik eremuan (39) hutsik dago (=E). Gure planak ekarpen definitukoak direnez soilik, ulertzen dut eremua ezin izango litzatekeela hutsik egon eta beti Bai jarri beharko genukeela. Era berean, HM estalduraren egozpenari dagokion eremuan (5) adierazita dago nahitaez bete beharrekoa dela, salbu eta hornidura matematikorik ez duten ekarpen definituko planen kasuan (hori da gure kasua). Hori dela eta, fitxategiaren definizioa irakurrita, ulertu dut estalduraren egozpenari dagokion eremua hutsik utz dezakegula eta ED soilik eremuan beti bai jarri behar dugula, baina hori ez dator bat 11. orrialdean aipatu den balioztatzearekin. Hornidura matematikorik ez duen ekarpen definituko plan baten kasuan, zein izango litzateke eremu hauek betetzeko modu egokia?

- XML fitxategien konfigurazioan «ED soilik» eta «HM estalduraren egozpenak %» eremuak behar bezala betetzeko, «Fitxategien definizioa» dokumentuaren 11. orrialdean jasotakoa bete behar da. Hala, HM ez duten ED planetarako, «ED soilik» eremua hutsik utzi behar da eta «HM estalduraren egozpenak %» eremuan 0 adierazi behar da.

«ED soilik» eta «HM estalduraren egozpenak %» eremu hauei buruzko adierazpenak aldatu egingo dira eredu zehatzen definizioetan («XML fitxategien definizioa» dokumentuan) eta laster bidaliko dira.

175.- Gordailuen eredua.

Bi eremu berri gehitu dira, gordailuaren nominala eta gordailuen minusbalioa, eta erabiltzailearen eskuliburuan zenbakizkoak dira (13 oso, 2 dezimal). XML fitxategi horren definizioan gordailuaren nominala soilik gehitu da, eta zenbakizko eremu gisa (15,2). Zein izango litzateke bi eremu horien egitura zuzena: 13 oso, 2 dezimal edo 15 oso, 2 dezimal?

- Biak dira zuzenak, «CML fitxategien definizioa» dokumentuaren 12. orrialdean adierazitakoaren arabera (jarraian transkribatuta dago):

«Zenbakizkoa (X, Y): X-Y zenbaki osoak eta Y dezimalak»; hau da, egitura (15,2) honako hau izango da: 13 oso eta bi dezimal.

176.- Erraztuko zaizkie erakundeei balioztatzeko xsd fitxategi berriak?

- Bai, baina aldaketak jasan dituzten 3. ereduko atalei dagozkienak soilik: Errenta Finkoa eta Gordailuak, kredituak eta akzioak, eta 9272007 Dekretuaren 11.3.1) artikuluko sozietateetako partaidetzak.

Adeitasunez,

177.- Arratsalde on.

Instrumentu mota berriari dagokionez (8- Aurreikuspen-planetako finantza-inbertsioen salerosketa-eragiketen ondorioz egin gabe dauden likidazioen saldo zordun eta hartzekodunak),

Zer jarri behar dugu IZENA eremuan?

- Kasu bakoitzean dagokiona. Ez dago aurrez definitutako izenik.

Ereduaren zehaztasunak kontuan hartuta, instrumentu mota honetakoa denean informazioa jaso behar duten eremu bakarrak hauek dira:

IZENDAPENA
HMESTALEGOZP.
INSTRUMENTUMOTA
BALANTZEA
MERKATUAREN BALORAZIOA ETA
PLANKOD.

Gainerakoak hutsik geratu behar dira, ezta?

- Bai, gainerako eremuak ez dira bete beharko; «Oharrak» eremua, aldiz, bete beharko da «Balantzea» eremua 7=A5/P3 ez bada.

Eskerrik asko.

EGUNERAKETA, 2012/09/21 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

178.- Arratsalde on.

Zalantzak ditut 2012ko 2. hiru hilekoari dagokion EKDari dagokionez, zer ulertu behar da alditzat? 2011ko martxoaren 24ko ebazpenaren arabera, ekitaldiaren bigarren hiru hilekoari dagokion dokumentazioan jasoko dira ekitaldiaren lehen sei hilekoari dagokion datuak. Edonola ere, 1. eredua betetzean (Bazkide arrunten mugimenduak), kargatuta ageri diren hasierako datuak bat datoz aurreko hiru hilekoaren amaierako datuekin. Hortaz, ulertu dut 2012ko bigarren hiru hilekoan bazkideen artean egindako mugimenduen berri soilik eman behar dela.

- Halaxe da. Bigarren hiru hilekoan egin diren bazkide arrunten alta eta baje berri eman behar da.

Horrekin lotuta, bi zalantza sortu zaizkit:

- 1. ereduan (Aurreikuspen-planak) hasierako likidazio-balioa eskatzen duenean, ekitaldiaren hasierakoa (2011/12/31) ala bigarren hiru hilekoaren hasierakoa (2012/03/31) eskatzen du?

- EKD erakundearen kontsultei buruzko dokumentuaren 154. galderan adierazitakoaren arabera, «Hasierako likidazio-balioa» eremuan beti adierazi behar da EKD tramatzen ari den aldiari dagokion ekitaldiaren 01/01eko likidazio-balioa.

Bestalde, «Bukaerako likidazio-balioa» eremuan beti adierazi behar da EKDari dagokion hiru hileko azken eguneko likidazio-balioa.

- Era berean, 7. ereduetan, ekarpenei, mobilizazioei eta erreskate eta prestazioei buruzko informazioa eskatzen denean, lehen sei hilekoan metatutakoa jaso behar da edo bigarren hiru hilekoari dagokion zenbatekoak soilik?

- 7. ereduaren ataletan, ekitaldi bakoitzean metatutako egoeraren berri eman behar da izapidetzen ari den EKDaren hiru hilekoaren amaieran. Hain zuzen ere, 2012ko 2. hiru hilekoari dagokion EKD izapidetzeko, 2012ko ekitaldian, ekainaren 30era arte, metatutako datuak jakinarazi behar dira.

Bazkide arrunten kopuruaren banaketak (adina, sexua, ekarpenak eta eskubide ekonomikoak adierazita) bat etorri behar du «PLANEKO BAZKIDEAK ETA ONURADUNAK» epigrafeko «Bazkide arruntak» eremuan esleitutako datuarekin. 41

Kasu berezia: EKDari dagokion hiru hilekoan baja egina duten planen kasuan, ekitaldian data horretara arte metatutako datuak soilik jakinarazi beharko dira.

EGUNERAKETA, 2012/09/25 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

179.- Egun on.

Honako zalantza hauek argitzea eskertuko genizueke:

- Negoziagarritzat jotzen dira truke-tasak, interes-tasak, dibidenduak, ...?

- Ez.

- Errenta finkoko gerokoen azpikoak bonu nozionalak dira; hortaz, ulertzen dugu negoziagarria den ala ez galdera sakiko entregagai merkeenari dagokiola. Zuzena?

- Bai, zuzena da.

- Adierazle bat negoziagarria da? Eta, hala, deribatuen bitartez eros daiteke soilik. Beraz, ulertzen dut azpi-aktiboa, balio gisa, ezin dela saldu edo erosi.

- Ez.

- Kasu batzuetan, errenta aldakorrean kasu, negoziagarria izango litzateke eta beteko luke 16. artikulua, eta, ondorioz, ez dirudi 1 eta 3 aukerak baztertzailak direnik. Nola bereiziko dugu 1 eta 3 aukeren artean?

• 3. aukera beteko da soilik azpi-aktiboaren negoziagarritasunak 16.1.c) artikulua betetzen duenean.

Azpi-aktiboari dagokion eremuari dagokionez, azpikoaren deskribapena bera da jakinarazi beharreko datua?

- Bai.

Eskertuko genizueke zalantza hauei ahalik eta azkarren erantzutea, egin beharreko garapen teknologikoari ekin ahal izateko.

Eskerrik asko.

180: Egun on.

Zalantza bat sortu zaigu 3. ataleko gordailuen ereduari dagokionez. Kontu korronteen tipo nominala aldatu egiten bada hiruhileko batetik bestera, jakinarazi behar dugu bigarren hiruhilekoko tipoa edo bi hiruhilekoetako batezbestekoa?

Eskerrik asko.

• Edozein kasutan, EKDari dagokion aldian indarrean dagoen interes-tasa jakinarazi beharko da.

181: Kaixo.

Zalantza dut 7. ereduari dagokionez, Heriotza kasuan, adibidez, onuradun kopurua adierazi behar denerako.

Eusko Jaurlaritzari jakinarazitako zenbatekoaren guztizkoa kontzeptu horrek kontabilitatean eragindako gastuarekin bat etortzea nahi badugu, arazo bat dugu aldia moztean elkartu baten heriotzaren ondorioz dagokion idazpena egiten dugunean, oraindik ez bada onuradunak nortzuk izango diren adierazi. Kontabilitatean erregistratuta dugu mugimendua, baina, 7. eredura eramateko orduan, badugu zenbatekoa baina ez dugu onuradun kopururik. Ulertzen dut onuradun kopurua dela urte horretan planaren prestazio ekonomiko bat jaso duten pertsona ez-mutualisten kopurua.

Horrelako egoeretan, nola jokatu behar dugu?

Mila esker.

- Onuradunen kopuru erreala jakin arte 1 balioa adieraziko da dagokion eremuan. Horrelakoetan, egoera azaldu beharko da «Modalitatea» eremuko «Oharrak» gunean, 1. ereduaren «Oinarrizko datuak» atalean.

EGUNERAKETA, 2012/10/02 ARTE PLANTEATUTAKO KONTSULTA BERRIETAN OINARRITUTA

182.- Egun on.

3. Deribatuak ereduko eremu berriak (azpikoa, azpiko negoziagarritasuna eta jaulkitzailea) betetzeko orduan, zer datu adierazi behar dira adierazle baten gaineko geroko negoziagarri bat bada?

Azpikoa

Adibideak: **Balioaren izena**

S&P 500 MINI 09-12

STOXX 50 09-12

EUROSTOXX 50 09-12

IBEX35 07-12

MSCI EMG MKT MINI 0912 (NY)

EURUSD MINI 09-12

STANDARD POOR'S 500 INDEX

STOXX 50

EUROSTOXX 50

IBEX 35

MSCI EMERGING MARKETS

EURO/DOLAR

- «Azpikoa» eremuan azpi-aktiboaren deskribapena jaso behar da.
- Deribatu baten azpikoa adierazlea den kasuetan, «Azpiko negoziagarritasuna» eremuan honako aukera hau adierazi beharko da: Ez. Adierazleak ez dira balio negoziagarriak.
- Behin-behinean, 2. hiruhileko EKD betetzeko, talde eta jaulkitzaile faltsu banaren alta egin beharko da 3. ereduaren «Jaulkitzaileak eta taldeak» atalean, biak «Jaulkitzailerik gabe» gisa adierazita. Aukera hori hautatu beharko da «Jaulkitzailea» eredia betetzeko.

Geroko EKDa betetzeko, jakinaraziko da (behar izanez gero) aurretik adierazitako talde eta jaulkitzailearen baja egin behar dela; izan ere, aplikazioa aldatu egingo da eta «Jaulkitzailea» eremuan «Jaulkitzailerik gabe» aukera gehitu.

2013/04/11ko EGUNERAKETA

183.- 122. galderaren azalpena.

Aplikazioak aldaketak izan zituen 1. Ereduko Gobernu Batzordea atalean. «Kargua» eremuan idazkariari dagokion aukera hautatuz gero, adierazi ahal izango da hura Gobernu Batzordeko kide den ala ez. Era berean, idazkaria Gobernu Batzordeko kide ez den kasuetan, ordezkariarik ez duela adierazi beharko da «Noren ordezkarietan» eremuan. Gainera, idazkaririk ez dagoen kasuetarako oharren eremua bete beharko da.

Ondorioz, baliogabe geratuko da dokumentu honen 122. galderaren erantzunean adierazitakoa, Gobernu Batzordeko idazkariaren karguari dagokionez.

2013/06/17ko EGUNERAKETA

184.- Egun on.

2013/06/17ko EKD betetzeko erakundeei bidalitako fitxategien definizio berriari dagokionez, hainbat zalantza sortu zaizkigu:

- Errenta finkoko 3.1 ereduaren eremu berri bat dago, «Kupoi jarraitua». Ulertzen dugu eredu honetan deklaraturako errenta finkoko balio bakoitzerako «kupoi jarraitua» eremuan jasoko dela deklarazioaren datan metaturako kupoi jarraitua jasoko da (kasu honetan, 2013ko martxoaren 31n). «Merkatu balioa» eremuan, kotizazio-datako kupoi gabeko kotizazioa gehi kupoi jarraitua jaso izan ditugu orain arte, merkatu arautuetan errenta finko negoziagarriko tituluetarako, «2009/04/29ko Aginduaren 16.1 artikulua betetzen du» eremuan lehenengo aukera betetzen zelako. Honako hau da gure zalantza: merkatu balioak jarraitu behar du kupoi jarraitua jasotzen edo kupoi gabeko kotizazioa soilik jasoko du?

Bai. «Merkatu balioa» eremuan kupoi jarraitua jasotzen jarraitu beharko da.

2013/06/27ko EGUNERAKETA

185.- Egun on.

Jaso dugun XML fitxategiaren 3. bertsioan, 2. orrialdean, honako hau adierazita dago 6.6 puntuari dagokionez:

6.6 Puntua - Jaulkitzailea/kontrako aldea eremuaren funtzionamendu aldaketa

Eskertuko genizueke zehaztasunez azalduko bazenigute zertan dautzan letra lodiz markatu ditugun aldaketak.

Eskerrik asko, eta agur bero bat.

- 3. Ereduko jaulkitzaile/kontrako aldearen eremuan alta egin beharko litzaioke BGAEaren aktibo deribatuen kontrako aldeari, baldin eta erakundea jaulkitzaile edo kreditu-erakunde gisa jasota ez badago.

186.- Egun on.

Bertsio berrian eta adierazitako ereduari, oharren eremua beharrezko gisa ezarri da. Eskertuko genizueke argitzea zer motatako oharra egin behar diren.

Eskerrik asko, eta agur bero bat.

- Egun on. «EKD - Erakundearen Kontsultak» dokumentuaren 59. galderari emandako erantzunean, honako hau adierazi zaie BGAEei: «Oro har, atal honetan barne hartuko dira, egokiak izan gabe ere, aurreikuspen-planei atxikitako aktibo guztiak, Erakundeak horien berri eman dezan; bertan azaldu beharko da, zehaztasunez, araudiaren kontrako inbertsioak egitea eragin duten arrazoiak».

Horregatik, 3.1-3.8 PLANETAN SARTZEN EZ DIREN AURREIKUSPEN-PLANEI ATXIKIRIKO BESTELAKO AKTIBOAK atalari dagokion oharren eremuan, zehaztasunez azaldu beharko da zer arrazoik eragin duen araudia urratzen duten inbertsioak egitea.

2019/05/16ko EGUNERAKETA

186.- Deribatuen kontsultak.

Epemuga bakoitzerako kode bat sortu behar da ala geroko kodea da? Adibidez, zorroan epemuga ezberdina duten Eurostoxx geroko bi edukiz gero, kode bera erabili beharko da bietarako?

Agur bat, eta eskerririk asko. 44

- Egun on. Finantza-deribatuen kontratu bakoitzak barne-kode bakarra izan behar du eta, gainera, denboran mantendu egin behar da. Hau da, identifikazioak bana-banakoak izan behar du eta ez da denboran aldatu beharko.

Hortaz, ezin da aurretik erabili den barne-kode bat berriro esleitu finantza-aktiboen beste kontratu bat identifikatzeko.

187.- Egun on, kontua argitzearen. Hilabeteko epemugak dituen urte osoko Ibex geroko posizio bat badugu, adibidez, urte osoan kode bera jarri beharko diegu IBEXaren GEROKOEI, ala epemuga bakoitzeko kode bat jarri beharko diegu (12 kode)?

Zure iruzkinen zain geratzen naiz.

- Arratsalde on. Finantza-deribatuen kontratu bakoitzak barne-kode bakarra izan behar du, denboran zehar mantenduko dena. Hortaz, epemuga ezberdinak dituzten IBEXen geroko kontratuetako bakoitzak bere barne-kodea izan beharko du, bana-banakoak.

2019/12/19ko EGUNERAKETA

188.- Arratsalde on. Zer dira «hiruhileko merkatuko balio aldaketak (*)»? Zer dira «aktibo birsailkatuak»? Egungo errenta finkoko ereduari ez bidali berri duzuenean ez da ezer esaten epeari buruz. Nola bete behar da «aurreko DECen epea» eremu berria?

«Hiruhileko merkatuko balio aldaketa» eremuari dagokionez, adierazi da aurreko DECean jakinarazitako balorazioarekin alderatuta finantza-aktiboaren balorazioak izan dituen aldaketak jakinarazi behar direla, baldin eta aldaketa horiek prezioaren balorazioan izandako gorabeheren ondorio badira edo atzerriko monetan adierazitako aktiboaren euro-balioetan izandako truke-tasen ondorio badira. Hau da, DECen erreferentziako datan zorroan mantendutako (eta aurreko DECean adierazitako) aktiboari dagokienez hiruhileko batetik bestera sortzen diren galera edo irabaziaz soilik adierazi behar dira. Hortaz, eremu honetan ez da adierazi behar hiruhileko batetik bestera egiten diren balioen erosketa-eragiketei dagozkien zenbatekorik (EKDaren dagokion datan zorroan mantendutakoak), ezta eragiketa horien ondorioz sortutako galeren edo irabazien zenbatekorik ere.

1. adibidea: BGAE batek AZ konpainia frantsesaren 17.000 akzio ditu zorroan 2019ko irailaren 30ean, merkatu balioa 799.850 €koa delarik. Urrian beste 10.000 akzio erosi ditu 430.000 €an. X urteko abenduaren 31n akzioen kotizazio-prezioa 48,30 €koa da. Erakundeak, 4. hiruhileko EKDan, aurreko DECean jakinarazitako tituluen galera edo irabaziaren zenbatekoa adierazi beharko du «Hiruhileko merkatuko balio aldaketa» eremuan: kasu honetan, 21.250 €.

«Aktibo birsailkatua» eremuan «Bai» adierazi beharko da baldin eta aurreko DECean jakinarazitako aktiboa behar bezala jakinarazi ez bazen honako eremu hauetako batean gutxienez: «Erreferentzia/kontrako aldearen eremua aurreko DECean», «Sektore instituzionalak aurreko DECean» edo/eta, hala badagokio, «Aurreko DECen epea».

Aurreko DECean «Epemuga» edo/eta «Jaulkitze-data» eremuetan egindako akatsen bat konpondu behar izanez gero, aurreko DECean jakinarazi ziren eta konpondu behar diren epemugaren eta jaulkitze-dataren arteko aldearen ondorioz sortutako epea adierazi beharko da «Aurreko DECen epea» eremuan.

2020/03/17ko EGUNERAKETA

189.- Arratsalde on.

1. ereduaren 1.6 erlaitzean (Bazkide sustatzaile eta babesleak) honako hau adierazi da:

«Hori dela eta, eredu honetan kargatzen dira BGAEak aurretik BGAEen Erregistroan sartu dituen datuak (bazkide babesleen alta, baja eta aldaketei buruzkoak), eta langile kopuruari zein bazkide babesle bakoitzaren ondareari dagozkion datuak gehitu beharko dira, kasu bietan generoaren arabera».

Langile kopurua aipatzen denean, EKDaren datan (kasu honetan, 2020/03/31) ondarea duten onuradunen gehi bazkideen kopurua adierazi behar da, ala ondarea duten bazkideen kopurua soilik, 1. ereduaren 1.2 erlaitzean (Bazkideak) bezala?

Eskerrik asko, agur bero bat.

Bazkide babeslearen langile aktibo diren langileen, bazkide aktiboaren eta etete egoeran dauden bazkideen kopurua adierazi behar da, baita bazkide tipologia horiei dagokien ondare orokorra ere, ekarpen definituko planei lotutako bazkide babesle bakoitzeko. Prestazio definituko planetan, bazkide babeslearen langile diren langileen, bazkide aktiboaren eta etete egoeran dauden bazkideen kopurua adierazi behar da, bazkide babesle bakoitzeko. Edonola ere, ondarea adierazteko zero jarri beharko da.

Galdera horri emandako erantzuna argitze aldera, honela idatzita geratu da: ekarpen definituko planetan, jakinarazi behar da bazkide babesle bakoitzaren jarduneko langileen kopurua, gizon eta emakume hurrenez hurren, BGAEko bazkide aktiboak direnak aldi berean EKDren erreferentzia-datan. Era berean, bazkide babesle bakoitzeko, mota horretako bazkideei dagozkien generoaren arabera ondare globalen berri eman behar da. Prestazio definituko planetan, halaber, jakinarazi behar da bazkide babesle bakoitzak BGAEko bazkide aktiboak diren –gizonak eta emakumeak, hurrenez hurren – zenbat langile dituen jardunean EKDren erreferentzia-datan. Hala ere, ondarea zerorekin informatu beharko da.

2020/08/28ko EGUNERAKETA

190.- Arratsalde on.

Espainiako Bankuak «Hiruhileko merkatuko balio aldaketa» eremuari buruz bidalitako jarraibide berrien arabera, baliogabe geratu da 188. galderaren erantzuna. Ondorioz, honako hauek dira jarraibide berriak:

BGAEek «Hiruhileko merkatuko balio aldaketa» eremua bete beharko dute, ez soilik EKDren datan zorroan mantendutako aktiboen kasuan (aurreko EKDan jakinarazitakoak, 2020ko 2. hiruhileko EKDraren arteko informazioa), baizik eta baita informazio-xede den aldi egindako salerosketa-eragiketen ondoriozko aktiboen kasuan ere.

Hori dela eta, finantza-aktiboaren balorazioak izan dituen aldaketak jakinarazi behar dira, baldin eta aldaketa horiek prezioaren balorazioan izandako gorabeheren ondorio badira edo atzerriko monetan adierazitako aktiboen euro-balioetan izandako truke-tasen ondorio badira. Hau da, aurreko paragrafoetan emandako jarraibideen arabera, hiruhileko batetik bestera sortzen diren galera edo irabaziak soilik adierazi behar dira (2020ko 3. hiruhilekoko EKDan oinarritutako informazio berria).

Hartara, 2020ko 3. hiruhilekoko EKDan, eremu berria jaso da, «Transakzio garbiak» izenekoak, erakundeek bertan adierazi ahal izateko informazioaren xede den aldi erositako eta saldutako tituluen kenketaren balioa.

Edozein kasutan, «Hiruhileko merkatuko balio aldaketa» eremuan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, aldiko batez besteko prezioaren metodoa baliatu beharko da, Europako Banku Zentralak proposatutako metodoa, alegia.

Informazioaren xede den aldiko batez besteko prezioa kalkulatzeko, informazioaren xede den EKDan adierazitako prezio unitarioa (bukaerako prezio unitarioa) eta aurreko DECearen adierazitako prezio unitarioa (bukaerako prezio unitarioa) erabiliko dituzte BGAEek.

1.- Zorroan mantendutako tituluen errebalorizazioari dagokionez, hau da, EKD egin den datan zorroan mantenduta dauden tituluei dagokienez (aurreko DECearen jakinarazitakoak), irizpidea ez da aldatu eta honela kalkulatu behar da: mantendutako tituluen kopurua * (bukaerako prezio unitarioa - hasierako prezio unitarioa).

2.- Baldin eta transakzio garbiak positiboak badira, errebalorizazioa honela kalkulatu behar da: Transakzio garbiak * (bukaerako prezio unitarioa - batez besteko prezio unitarioa).

3.- Baldin eta transakzio garbiak negatiboak badira, errebalorizazioa honela kalkulatu behar da: Transakzio garbiak * (batez besteko prezio unitarioa - hasierako prezio unitarioa).

4.- Baldin eta transakzio garbiak nulua badira, hiruhileko erosketa-salmenten errebalorizazioa ere nulua izango da.

Edonola ere, ISIN bakoitzeko, «Transakzio garbiak» eremuan balio positiboa, negatiboa edo zero adierazi beharko da, aurreko 2., 3. edo 4. puntuan adierazitako inguruabarretako zein gertatzen den kontuan hartuta. Era berean, ISIN bakoitzeko, «Hiruhileko merkatuko balio aldaketa» eremuan, batuketa honen emaitza adieraziko da: zorroan mantendutako tituluei dagozkien errebalorizazioak (aurreko 1. puntua) + aurreko 2. edo 3. edo 4. puntuetan adierazitako transakzioak.

Oharra: errenta finkoko aktiboen kasuan kupoi gabeko prezioak erabili beharko dira.

Azkenik, Europako Banku Zentralak eskatzen duena hobeto ulertzeko adibide bat bidaltzen dizuegu.

2020ko 2. hiruhilekoan, ZZ BGAEak Estatuaren Bonuen 138 titulu ditu zorroan, merkatuko prezioan 153.160 €an balioztatuta, eta kupoi jarraitua 926 €koa da. Abuztuaren 11n beste 100 titulu eskuratu ditu, 110.500 €an (kupoi jarraitua 855 €). Gainera, irailaren 14an 150 titulu saldu ditu, 164.500 €ko balioan. Titulu horien kupoi jarraitua 1.506 €koa da salmenta-egunean. Demagun alde batera utzi dituela eskuratutako azken 100 tituluak eta ekainaren 30ean

zituen tituluetatik 50. Irailaren 30ean, erakundeak 88 titulu ditu zorroan, 96.489 €ko merkatu balioa dutenak (kupoi jarraitua 945 €).

Transakzioen balorazioa egiteko aldiko batez besteko prezioa erabiltzen denez, pentsatu ohi da guztiak era berdin banatu direla aldi osoan; horrela, balioak izango liriteke kalkulu horiek eta transakzioak batez besteko prezioari dagokion aldiaren batez besteko puntuan kontzentratuta egongo balira eskuratuko liritekeen zenbatekoak.

Horrela, honako hau izango litzateke kalkulu egokia:

2002-06-30ean zorroan dauden 138 tituluaren kupoi gabeko prezio unitarioa (hasierako prezio unitarioa): $(153.160-926)/138=1.103,1449$ €

2020-09-30ean zorroan dauden tituluaren kupoi gabeko prezio unitarioa (bukaerako prezio unitarioa): $(96.489-945)/88= 1.085,7273$ €

Aldiko batez besteko prezioa: $(1085,7273+1103,1449) /2 =1094,4361$

1.- 2020-09-30ean zorroan mantendu diren tituluaren errebalorizazioa. $88*(1085,7273-1103,1449) =-1.532,7488$

Aldiaren amaieran zorroan jarraitzen ez duten tituluaren errebalorizazioa kalkulatzeko, aldiaren egindako transakzio garbiak kalkulatu behar dira lehendabizi: $100-150=-50$.

2.- 2020-09-30ean transakzio garbi negatiboak dagozkien tituluaren errebalorizazioa. $50*(1094,4361-1103,1449) =-435,44$

Errebalorizazio osoa, adibidez: $-1532,74 - 435,44= -1968,1888$

2020/12/01eko EGUNERAKETA

191.- Arratsalde on.

Etorkizunean akats gehiago gerta ez daitezzen, Espainiako Bankuari jakinarazi beharreko "eskuratutako balio nominal totala" datuari dagokionez, errenta finko negoziagarriko aktiboetarako, 3.1 ereduak errenta finkoko "dibisa", "Dibisaren kotizazioa", "Balio nominal unitarioa" eta "titulu-kopurua" eremuak EKDn betetzeko kontuan hartu beharreko jarraibide jakin batzuk adierazten dira.

"Dibisaren kotizazioa": eremu hori euroaren trukearekin bete behar da, dibisaren aldean.

"Balio nominal unitarioa": eremu hau dibisaren balioarekin bete behar da.

Nolanahi ere, balio nominal unitarioa ez dagoen edo ezagutzen ez den jaulkipenen kasuan, balio nominal unitarioa 1.000 balioarekin informatu behar da; eta "titulu kopurua" eremuan, berriz, behin 1.000 zenbakiarekin biderkatuta, zenbateko nominaletan egindako inbertsio osoa eman dezan.

Adibidea: BGAE batek 2020/09/30ean jakinarazitako kasu erreala:

Isin: US9128283W81 Izendapena: Bo. US Treasury %2,75 280215 USD dolarretan emana. Kasu horretan, eremu hauek bete behar dira:

Dibisa: dolar estatubatuarra/USD

Dibisa kotizazioa: 1,172200 (€ dolarraren aldean)

Balio nominal unitarioa: 100 (USD)

Titulu kopurua: 130.000

Espainiako Bankuari igorritako informazioa 09/30ean, "Eskuratutako balio nominala guztira": $(100/1,1722)* 130.000 = 11.090.257,64$ €

2021/03/16ko EGUNERAKETA

192.- Egun on.

Espainiako Bankuari jakinarazi beharreko " Erreferentzia/kontrako aldearen eremua" eta "sektore instituzionalak" eremuei dagokienez, etorkizunean akats gehiago gerta ez daitezzen, "Erreferentzia/kontrako aldearen eremua" eremuko 4A eta 9A aukerak osatzen dituzten

erakundeen zerrenda jaso da. Zerrenda horretan bakoitzari dagokion sektore instituzionala ere jakinarazten da:

4A- Europako erakunde guztiak, EBZ eta EEM izan ezik		Sektorea	9A- Nazioarteko erakundeak, Europar Batasuneko erakundeak izan ezik		Sektorea
4B	EMS (European Monetary System)		1C	IMF (International Monetary Fund)	S122**
4C	EIB (European Investment Bank)	S125	1D	WTO (World Trade Organisation)	S13
4D	European Commission	S13	1E	IBRD (International Bank for Reconstruction and Development)	S125
4E	EDF (European Development Fund)	S13	1F	IDA (International Development Association)	S125
4G	EIF (European Investment Fund)	S125	1G	ICSID (International Centre for Settlement of Investment Disputes)	S126
4H	European Coal and Steel Community	S13	1H	UNESCO (United Nations Educational, Scientific and Cultural Organisation)	S13
4I	Neighbourhood Investment Facility	S13	1J	FAO (Food and Agriculture Organisation)	S13
4J1	European Parliament	S13	1K	WHO (World Health Organisation)	S13
4J2	Council of the European Union	S13	1L	IFAD (International Fund for Agricultural Development)	S125
4J3	Court of Justice	S13	1M	IFC (International Finance Corporation)	S125
4J4	Court of Auditors	S13	1N	MIGA (Multilateral Investment Guarantee Agency)	S125
4J5	European Council	S13	1O	UNICEF (United Nations Children Fund)	S13
4J6	Economic and Social Committee	S13	1P	UNHCR (United Nations High Commissioner for Refugees)	
4J7	Committee of Regions	S13	1Q	UNRWA (United Nations Relief and Works Agency for Palestine)	
4J8	Other small European Union Institutions and agencies (Ombudsman, Data Protection Supervisor etc.)		1R	IAEA (International Atomic Energy Agency)	S13
4R	EU-Africa Infrastructure Trust Fund	S13	1S	ILO (International Labour Organisation)	S13
4T1	EBA (European Banking Authority)	S126	1T	ITU (International Telecommunication Union)	S13
4T2	ESMA (European Securities and Markets Authority)	S126	1U	Rest of UN Organisations n.i.e.	S13
4T3	EIOPA (European Insurance and Occupational Pensions Authority)	S126	5AA	Multilateral Lending Agencies	
4U	EURATOM	S13	5B	BIS (Bank for International Settlements)	
4V	FEMIP (Facility for Euro-Mediterranean Investment and Partnership)	S125	5C	IADB (Inter-American Development Bank)	S125
			5D	AfDB (African Development Bank)	S125
			5E	AsDB (Asian Development Bank)	S125
			5F	EBRD (European Bank for Reconstruction and Development)	S125
			5G	IIC (Inter-American Investment Corporation)	S125
			5H	NIB (Nordic Investment Bank)	S125
			5I	ECCB (Eastern Caribbean Central Bank)	S121
			5J	IBEC (International Bank for Economic Co-operation)	S125
			5K	IIB (International Investment Bank)	S125
			5L	CDB (Caribbean Development Bank)	S125
			5M	AMF (Arab Monetary Fund)	S125
			5N	BADEA (Banque arabe pour le développement économique en Afrique)	S125
			5O	BCEAO (Banque Centrale des Etats de l'Afrique de l'Ouest)	S121
			5P	CASDB (Central African States Development Bank)	S125

			5Q	African Development Fund	S125
			5R	Asian Development Fund	S125
			5S	Fonds spécial unifié de développement	S125
			5T	CABEI (Central American Bank for Economic Integration)	S122
			5U	ADC (Andean Development Corporation)	S122
			5W	BEAC (Banque des Etats de l'Afrique Centrale)	S121
			5X	Asian Infrastructure Investment Bank	
			5Z	Other International Financial Organisations n.i.e.	
			7A	WAEMU (West African Economic and Monetary Union)	S13
			7B	IDB (Islamic Development Bank)	S125
			7C	EDB (Eurasian Development Bank)	S125
			7D	Paris Club Creditor Institutions	S13
			7E	CEB (Council of Europe Development Bank)	S125
			7F	International Union of Credit and Investment Insurers	S126
			7G	Black Sea Trade and Development Banks	S125
			7H	AFREXIMBANK (African Export-Import Bank)	S122
			7I	BLADEX (Banco Latino Americano De Comercio Exterior)	S122
			7J	FLAR (Fondo Latino Americano de Reservas)	S122
			7K	Fonds Belgo-Congolais d'Amortissement et de Gestion	S13
			7L	IFFIm (International finance Facility for Immunisation)	S13
			7M	EUROFIMA (European Company for the Financing of Railroad Rolling Stock)	S125
			6B	NATO (North Atlantic Treaty Organisation)	S13
			6C	Council of Europe	S13
			6D	ICRC (International Committee of the Red Cross)	S13
			6E	ESA (European Space Agency)	S13
			6F	EPO (European Patent Office)	S13
			6G	EUROCONTROL (European Organisation for the Safety of Air Navigation)	S13
			6H	EUTELSAT (European Telecommunications Satellite Organisation)	
			6I	EMBL (European Molecular Biology Laboratory)	S13
			6J	INTELSAT (International Telecommunications Satellite Organisation)	
			6K	EBU/UER (European Broadcasting Union/Union européenne de radio-télévision)	S13
			6L	EUMETSAT (European Organisation for the Exploitation of Meteorological Satellites)	S13
			6M	ESO (European Southern Observatory)	S13
			6N	ECMWF (European Centre for Medium-Range Weather Forecasts)	S13
			6O	OECD (Organisation for Economic Co-operation and Development)	
			6P	CERN (European Organisation for Nuclear Research)	S13
			6Q	IOM (International Organisation for Migration)	S13

			6Z	Other International Organisations n.i.e.	Non-Financial	
--	--	--	----	--	---------------	--

** Behin-behinekoa

193.- Egun on.

Balantzearen estatistiketarako informazio-eskemaren barruan esleipen geografikoa egiteko, **Europako Banku Zentrala** Alemanian bizi den diruzko finantza-erakunde gisa sailkatuta dagoela adierazi digu Espainiako Bankuak. Beraz, desagertu egiten da 4F – Europako Banku Zentrala honako eremuan: " Erreferentzia/kontrako aldearen eremua". BGAEek "**DE-Alemania**" rekin bete beharko dute eremu hori kasu horietan.

2021/10/04ko EGUNERAKETA

194.- Egun on,

EKDn jakinarazten dugun Durazioaren datuaren kalkulua berrikusten ari gara (errenta finkoko 3.1 eredua), eta ikusten dugu repoen kasuan urteko Durazioa jakinarazten ari garela (Macaulayren iraupena 12 hilabetetan), repoaren xede den jaulkipenari buruzkoa, ez errepoarena berarena.

Hau horrela da? Segur aski bere garaian kontsulta egin genien eta horregatik ari gara horrela komunikatzen, baina ziurtatu egin nahi dugu.

Eskerrik asko

Agur bero bat.

Egun on:

Repoko inbertsioen Durazioari dagokion informazioa repoaren Durazioa berari buruzkoa izango da.

195.- Egun on,

Erakundeak karteran bonu bat du, faktor nominala daukana. eta, beraz, bonuaren jaulkitzaileak interes gehi principala ordaintzen du aldian-aldian. Bonuaren balio nominal unitarioa 1.000 eurokoa da, eta ekainaren 30ean nominal bizia % 5ekoa da (50 euroko nominala titulu bakoitzeko eta 2.500 euroko nominal bizia). Gure zalantza da erakundeak ekainaren 30eko nominal bizia balio nominal unitario gisa informatu behar ote zuen. Zein da kasu horietan jarraitu beharreko irizpidea?

Egun on:

Banco de Españaren erantzunaren arabera, beharrezkoa da ekainaren 30eko balio nominal unitarioa informatzea, hau da, kasu zehatz honetarako 50.